

Herririk Herri | 3

Kirol ekipamendu berriekin hornituko du atletismo pista Amankomunazgoak



Berbaz | 8

C. Romanelli: "Lore esentzien metodoak ohiko medikuntzaren osagarriak dira"

Kultura | 12

Elorriotik autobusa dohainik ipini dute 'Break On Stage' jaialdira joateko

ABADIÑO | 2

"Gertatua estali gura du Ertzaintzak atxiloketaz"

Cabacas hil zuen karga poliziala motibatu zuelakoan, Abadiñoeko gazte bat atxilotu dute

Gaztearen lagunek haserrea agertu dute: "Errudun bat behar zuen Ertzaintzak"



Judit Fernandez

Zelaietako eskolako jantokia handitzeko lanak egingo dituzte

Abadiño • Gimnasioa eta jantokia handitu eta eskola eremuko oztopo arkitektonikoak leuntzeko lanak egingo dituzte Zelaietako eskolan. Obra horiek gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzak 660.000 euroko aurrekontua

onartu eta proiektua adjudikatzeko lehiaketa ireki du. Bestalde, eskolan gela gehiago egiteko eta haurreskola egokitzeko proiektua adostu guran dabilta Hezkuntza saila, udala eta eskolako zuzendaritza. | 2

KIROLA | 15

"Pitxitxi geratzea ez zait inporta; igoera lortzea da garrantzitsuen"

Kerman Gonzalez aurrelari zornotzarra denboraldi bikaina osatzen ari da aurten Abadiño futbol taldeagaz



DURANGO | 3

Eguaztenean batzartuko dira Erralde eta Osasun Saila

ELORRIO | 4

Elorrion batuko da emakume alargunen EAEko federazioa

Durango | 4

Durango Operazioa argindarrez hornitzeko 1,7 milioi bideratu dira

Iurreta | 7

Inbertsioen atala erdira jaitsi dute aurtengo aurrekontuetan

Mañaria | 6

UEMan zergatik sartu gura duten azalduko diete herritarrei

Izurtza | 6

Kirol materialetan udalaren logoa ipintzea diruz lagunduko dute



46 etxebizitza libre:

2 logela - 76,75 m²

3 logela - 92,10/97,40 m²

4 logela - 102,66 m²

PROMOZIO BERRIA MATIENAN



20 etxebizitza tasatu:

2 logela - 58,45 m²

3 logela - 72,80 m²

Garajeak eta trastelekuak

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00 - www.inmorehala.com

Salmenta bulegoa obran bertan

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

ABADIÑO

"Errudun bat behar zutelako atxilotu du Ertzaintzak"

Ertzaintza atxilotuta erabiltzen dabil, erantzukizunik hartu ez eta bere burua zurrizteko, atxilotutako 26 urteko abadiñarraren lagunek diotenez

Gertatutakoa estali gura du Ertzaintzak kasuan beste pertsona batzuk inplikatu". Hori adierazi dute Durangon atxilotu duten gazte abadiñarraren lagunek. "Errudun bat behar zutelako atxilotu du Ertzaintzak". Eguaztenean atxilotu zuten, baita Bilboko beste gazte bat ere. 26 eta 22 urte dituzte, hurrenez hurren, eta pasa den egunean Bilbon gertatutako liskarretan parte hartu izana egotzi diete, Athletic-Schalke 04 futbol partiduaren ostean.

Bilboko Maria Diaz de Haro eta Licenciado Pozan izan ziren gertaerak. Ertzaintzak esan duenez, hainbat herritarrek dei egin zuten, lurtean pertsona bat etzanda zegoela eta borroka egon zela ohartarazteko. Ondoren, eta Ertzaintzaren bertsioaren arabera, borrokan zebiltzanen aurka kargatu zuten. Pilotakada batek, Basauriko Iñigo Cabacas buruan jo zuen, eta, forentsearen txostenak baieztatu duenez, pilotakada

horrek 28 urteko gaztea hil egin zuen. Astelehenean hil zen, eta gero etorri dira atxilotetak.

Abadiñoko gaztearen lagunek euren haserrea agertu dute, eta elkarretaratzea deitu dute gaur 19:30erako Traña-Matienan. Haien ustez, "Ertzaintzak ez du gertatutakoaren erantzukizuna bere gain hartu gura eta, horregatik, errudunak bilatzen dabil, euren burua zurrizteko". Atzo arratsaldean, edizioa zarratzerakoan, Ertzaintzaren esku jarraitzen zuen abadiñarrak, Deustuko komisaldegian, epailearen aurretik pasatzeko zain.

Atxilotuaren lagunek elkarretaratzea deitu dute barikuan Traña-Matienan

Abokatuak jakinarazi duenez, familiakoek oraindino ezin izan dute gaztea ikusi, ezta berak ere. Hasieran, ofiziozko abokatu baten

esku utzi zuten abadiñarraren kasua, baina, gazteak du deklaratu gura izan, epailearen aurretik pasatu arte. Baina, azken hori ere ertzainek adierazi duten bertsioa dela ohartarazi du abokatuak.

Juan Calparsoro EAeko fiskal nagusiak adierazi duenez, Ertzaintzaren gomazko pilota batek eragindako heriotza, ustezko ardura-gabekeriako homizidioa izan daiteke. Hala ere, ustekabeko gertaera izan daitekeela ere azaldu du.

Atxilotuta Elorrion

Pasa den martitzenean, Elorrion, Ertzaintza hiru gazte identifikatzen saiatu zen, Cabacasen heriotza salatzen pankarta bat jartzeagatik. Lekukoaren arabera, plazan, Ertzaintza pankarta bat kentzen zebilela, gazte batek aurre egin zien. Agenteek identifikatzeko eskatu zioten, eta gazteak ezezkia erantzuterakoan, atxilotu egin zuten. Arau-hauste delitua egotzita aske utzi du ertzaintzak. ■ J. G.

ZALDIBAR

Udalaren informazioa zabaltzeko panel berriak

Herrigunean zein auzoetan ipini dituzte panel berriak, eta udaltxeko oharrak, iragarkiak eta deialdiak zabaltzeko baliatuko dituzte. Aurretik udaltxearen kanpoaldean eta San Andres kalean bakarrik zeuden panelak. Artian, Zaldia plazan eta Elizondo kalean ipini dituzte informazio panel berriak.

Artian, Zaldia plazan eta Elizondo kalean ipini dituzte informazio panel berriak

Horregaz batera, eskola inguruko etxebizitzaren eremu berriko kalei ere izenak ipini dizkiete azken asteotan. Bertako toponimiaren arabera izenak ipini dizkie udalak kale berriei.

Inguru horretan zeuden soloen izenak hartu eta ipini dizkiete kale berriei, Jose Andres Urizar hirigintzako zinegotziak azaldu duenez. Kurutze-zahar izena ipini diote plazari, esate baterako. ■ I. E.

OTXANDIO

Kantu-afarian, bihar, Erramun Martikorena eta Mikel Markez

Arkotxe kultur elkarteak urteroko kantu-afaria antolatu du zapatarako, 22:00etan, Mekoletan. Aurten Mikel Markez eta Erramun Martikorena gonbidatu dituzte. Musikari eta konposatzaile biek hainbat emanaldi eskaini dituzte elkarrekin joan zen urteko udazkenetik hona.

Biharko emanaldirako hainbat abesti ezagunekin osatutako kantuen liburuxka prestatu du Arkotxek: "Kantua konpartitu gura dugu. Musikari eta bertaraten diren arteko hartuena sustatzen saiatzen gara. Abesti batzutan eurak bakarrik ariko dira, eta beste batzutan denok abestuko dugu", adierazten du ekimeneko antolatzailetako bat den Josu Zabalak. Errepertorioa Otxandio inguruko kantuek zein Euskal Herrikoek osatuko dute. ■ J.D.

Euskal kantu tradizionalak nahiz euren abesti ezagunak eskainiko dituzte Mekoletan

Eskolako espazio falta konponduko dutela adierazi dute

Zelaietako eskola handitzeko lanak bere gain hartzeko konpromisoa berretsi du Jauraritzak

Zelaietako eskola publikoan jantokia handitu, gimnasio berria egin eta oztopo arkitektonikoak leuntzeko lanak abiatuko dituztela jakinarazi du Abadiñoko Independenteak taldearen gobernu taldeak. Eusko Jauraritzak 660.249 euroko aurrekontua daukan proiektua argitaratu du. Obraren hasiera data Jauraritzaren aurrekontuaren arabera izango da, eta sei hilabeteko exekuzio epea izango du, Jose Luis Navarro alkatearen duenez.

Abenduan argitaraturiko gutun batean, Zelaietako eskolako gurasa elkartekoek kritikatu zuten, eskolako jantokia eta gimnasioa handitzeko behar larria zegoen. Eskolaren egoeragaz "oso arduratuta" agertu ziren.

Jantokia eta gimnasioa bezala, eskola publikoaren gainontzeko azpiegiturak ere txiki geratu dira, eta ados daude Abadiñoko udaleko hiru alderdiak. "Herria handitu ahala hezkuntzarako

azpiegiturak ere handitzeko beharra edukiko genuela iragartzen urteak daramatzagu", dio Bilduko Saioa Zuazubizkarrek. "Jantokiko eta gimnasioa obra honek ez du arazo orokorra konpontzen: eskola txiki geratu da", dio EAJko Eneko Etxebarria bozeroaleak.

Jauraritzaren Hezkuntza sailak ere onartu du eskola handitzeko beharra, eta konpromezua hartu du bere gain hartzeko gela gehiago egiteko lanak. Hala ere, Jauraritzak oraindino ez du lanen hasiera datarik finkatu.

Negoiazioetan dabilza udaleko hiru alderdiak, eskola handitzeko eta haurreskola ere egokitzeko proiektua adosteko, eskolako zuzendaritzagaz, eta Hezkuntza sailagaz batera. Kokapen egokia eta proiektuaren ezaugarriak daukate eztabaidagai. Hil honetarako aurrekusten du udalak aurretiko bati heldu eta egitasmoagaz aurrera egitea. ■ I. E.



Oztopo arkitektonikoak kentzeko, igogailua ipiniko dute, besteak beste. Judit Fernandez

Gimnasioa eta jantokia handitzeko proiektua abian

Eusko Jauraritzak lehiaketara ateratako proiektuak jasotzen duenez, solairu bateko eraikin bat egingo dute Zelaietako eskolako gimnasioaren aldamenen. Jantokiaren leku faltari konponbidea emateko helburuz, orain arte gimnasioak hartzen zuen lekua

hartuko du jantokia. Horrela, eraikin berria egingo dute orain dagoena baino gimnasio handiagoa edukitzeko.

"Jantokia handitzea da lehentasun handieneko obra", Jose Luis Navarro alkatearen berbetan: "Ume guztientzako leku-

rik ez dago, txandak antolatu behar dituzte jantokian orain".

"Oso pozik" agertu da berriztatze proiektu honeguz alkatea, Abadiñoko Udalak eta Zelaietako eskolako zuzendaritzak Jauraritzari hainbat bider eskatu dioten proiektua gauzatzea ekarriko duelako. "Oso beharrezkoa zen proiektua, eta oso pozik gaude obrei ekingo dietelako", dio Abadiñoko Independenteak taldeko Navarrok.



DURANGALDEA

Atletismo pistarako kirol ekipamendua erosiko dute

Besteak beste, pertikarako koltxoneta eta jaurtiketa kaiola eskuratuko dituzte



Durangoko atletismo pista Landakon kokatua dago.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak atletismo pista kirol-ekipamendu berriekin hornitzeko kontratua adjudikatu du. Pertika-jaurtirako koltxoneta berria eta jaurtiketa-kaiola erosiko ditu, 68.597 euroko aurrekontuagaz.

Gainera, ekainean kirol instalazioa barrutik eta kanpotik berriztuko dute. Azken lan hauen kostua 250.000 eurokoa izango da.

Kirol instalazioa barrutik eta kanpotik konpontzeko 250.000 euro bideratu dituzte

“Hainbat urtetan jardunean egon eta gero, instalazioetan beharrezkoak diren berrikuntza garrantzitsu batzuk egiteko ordua heldu da”, azpimarratu du Oskar Zarrabeitiak, Amankomunazgoaren presidentek.

Material berriak eta berrikuntza-lanak Amankomunazgoak dituen baliabide propioekin ordainduko dituztela jakitera

eman dute, eta udalek ez dute ordainketa gehigarririk egin beharko Amankomunazgoaren presidentearen berbatan.

Gehien erabiltzen dena

“Durangoko atletismo pista Bizkaian eta Euskal Herrian gehien erabiltzen dena da, eta estatu mailan erreferentzia bat da”, azaldu dute Amankomunazgoaren ardura-dunek. Pista homologatu honek, kirol ekintza ugarirentzako aukera dago: atletismoa, jaurtiketak, altuera-jauziak eta abar. Instalazio hauetan Bizkaiko eta Euskal Herri osoko hainbat froga antolatzen dituzte.

“Kirol-esparru oso aktiboa da eta asteburu askotan bertan antolatzen diren frogekin gozatzeko aukera izaten dugu. Horregatik, nabaria da gure kirolaren aldeko apustua, are gehiago eskualdeko kirolari ugari erabiltzen dituzten instalazio hauek ditugunean. Eskola umeek eta Bidezabal taldeak entrenatzen dute hemen”, azaldu du Zarrabeitiak. ■ J. Guenetxea

DURANGO

Hobekuntzak ikusteko, hiltegiara joan daitezene eskatuko dute Lakuan

Erraldeko arduradunak eguaztenean batzartuko dira Osasun sailagaz; EHNEk protestara deitu du

Datorren eguazteneko batzarra erabakiorra izan daiteke Durangoko hiltegiaren etorkizunerako. Osasun sailak zarratzeko agindua eman zuenean, orduan azalduziren gabeziak konpontzeko, Erraldeko hobekuntza plana diseinatu du. Plan hori edukiko dute berba-gai Osasun sailagaz izango duten batzarrean. Ikuskatzaileak hiltegi-joatea eskatuko dute Erraldeko arduradunek, egindakoa bertatik bertara ikusteko.

Batzar egunerako EHNEk elkarretaratzea deitu du Eusko Jaur-larritza aurrean, 10:00etan, “base-ritarrek nozitzen duten kaltea salatu eta Osasun Sailari jarrera aldaketa exijitzeko”.

Aste Santuaren aurretik, hiltegia zarratzeko ebazpenari Erraldeko ipini zion errekurtsioa atzera bota du Osasun sailak. Zarratzeko arrazoi nagusia produkzio katearen egitura dela berretsi du Jaur-laritzak: ‘S’ forma dauka eta forma lineala eduki behar lukeela dio.

EHNEk Osasun sailaren erabakia kritikatu du. Sindikatuko Unzalu Salterainek adierazi duenez, “Europako osasun araudiek ez dute esaten linea zuzen bat egon behar denik, langileak euren artean gurutzatu ezin direla baino”. Azaldu duenez, araudiak malgua aplikatzen dira Europako hainbat lekutan: “Austrian eta Frantzia errealtateari egokitu-ta-



Urtarrilean hiltegiaren itxiera aurretik egindako asanblada.

ko irakurketa egiten da eta bertako abeltzaintza indartzen duten hilketa zerbitzuak bultzatzen dira”.

Beharginekin batzarra

Erraldeko kontseilua langileekin batzartu zen atzo egoeraren berri emateko. Juanjo Elgezabal orde-

kari sindikalak (CCOO) azaldu duenez, “kontua beltz dago, eta azken esperantza datorren asteko batzarra dela ematen du”. Berrizko egitasmoan laster pausoak ematea espero du Elgezabalek. Hiltegiako langileak otsailaren 8tik daude erregulazio espedientean. ■ A.U.

Durango Txartelagaz, %5eko deskontuak

Durangoko eta Zaldibarreko 87 dendak %5eko deskontu bonoak eskainiko dizkiete Durango Txartela erabiltzen duten bezero guztiei, apirilaren 16tik 30era. Askotariko produktuak eskuratzeko aukera eskaintzen du +Dendak elkarteak txartel honeguz.

Arropa dendek, oinetako dendek, kontzesionarioek, liburu-dendek, altzari dendek, janari dendek, hotelek, bitxitegiek, bidaia agentziek, burdindegiek eta beste hainbat produktu sal-tzen dituzten komertzioek ekimenagaz bat egitea erabaki dute.

Beharpena erosketa guztietan aplikatuko dutela jakitera eman dute antolatzaileek, epeka ordaintzen direnetan izan ezik. Ekimen hau +Dendak elkarteak Durango Txartelaren erabiltzaileentzako martxan jarritako promozioetako bat da. ■ J.G.

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA. Landako etorbidea, 4 A. - 48200 Durango. Telefonoa: 946030300

DURANGO

Jesuitetako ikasle talde bat RetoAlcoa-ko finalera heldu da

Enpresak zuzentzeko egitasmoen RetoAlcoa lehiaketako finalera heldu da Jesuitak ikasle talde bat. Apirilaren 27an izango da finala, Madrilen.

Enpresa birtual baten produktua eta diru-sarrera batzuk kontuan hartuta, zehaztu behar izan dute, besteak beste, produktioaren tamaina, produktuaren prezioa eta publizitatean eta ikerketan zenbat inbertituko duten.

Enpresa birtual baten produktioaren tamaina eta ikerketarako inbertsioa zehaztu behar izan dituzte

Lehiaketan, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleen 240 taldek parte hartu dute. Jesuitetako Joxai talde finalistagaz batera, Durangoko beste bi taldek parte hartu dute lehiaketan: ikastetxe bereko Sanpale taldeak eta Maristetako MRSTK3-k. ■ A.U.

Durango Operazioko lanak elektrifikatzeko 1,7 milioi

lurretatik Berrizera ipiniko dute instalazio elektrikoa, bost hileko epean

Eusko Jaurlaritzaren Garraio Sailak 1,7 milioi euro bideratuko ditu, Eusko Trenbide Sarearen bitartez, Durango Operazioaren elektrifikatze lanak

Arriolak urtea amaitu aurretik tren lurazpitik joango dela azaldu du

osatzeko, Iurreta eta Berriz arteko zatian. Jaurlaritzak azaldu duenez, erabaki horregaz, Iñaki Arriola Garraio sailburuak adierazi zuen helburua baieztatu dute: lan horiei



Durangoko tren geltoki berria eraikitzen dabilta. Kepa Aginako

ahalik eta lehentasun handiena ematea.

Durangon tren lur-azpitik urtea amaitu aurretik joatea da Jaurlaritzaren asmoa Arriolak azaldu duenez. Kopuru zehatza 1.705.595 euro dira, eta kontratua betetzeko bost hilabete dituzte. Trenbidea lurperatzeko lanak, Durangoko Santa Apolonia Berrizera doan Bilbo-Donostia lineako zatian egingo dituzte.

Une honetan, Euba-Iurreta zatia bikoizteko, Durangoko geltokia eraikitzeke eta Traña-Lebario zatia bikoizteko lanetan dabil-

Lebarioko tailer eta kotxetegiak eraikitzeke behar diren instalazioak egiten dabilzala azaldu dute

tza. Lebarioko tailer eta kotxetegi berriak ere egiten jarraitzen du Jaurlaritzak. Lan horietarako beharrezkoak diren instalazioak egiten ari direla gogoratu dute: elektrikoak, elektro-mekanikoak, sarbide mekanizatuak, komunikazioak, tentsio ertaineko lineak eta baita trenbideko seinalezta-pena ere. ■ J.Guenetxea

ELORRIO

Alargunak, mugimendua indartu asmoz batuko dira

EAEko federazioak elkarten egoera landuko du



Elorrioko Alargunen Elkarteko kide batzuk.

EAEko emakume alargunen elkarten federazioak aurten Elorrioren egingo du urteroko ohiko batzarrara, bihar. Antolakuntza aztertzeke erabiliko dute zita. Mugimendua indartzea dute helburu. Maitte Bilbaok, federazioko lehendakariak, azaldu du elkarteetan batzen diren emakume asko zaharrak direla, eta taldeak eraberritzeko arazoak dauzkatela.

Egoera ekonomikoak ere eragina ei dauka. Bilbaok diru-laguntza falta kritikatu du: "Elkarte bat

Egoera ekonomikoak ere eragina ei dauka; Bilbaok diru-laguntza falta salatu du

Maiatzaren 13an azalduko dute euren egoera, Durangon egingo duten topaketan

ez desagertzeko, ekintzak egin behar dira, eta ekintzak egiteko diru-laguntzak behar ditugu".

Elorrioko Alargunen Elkarteak izango da bihar anfitrioi. 1991n batu ziren lehenengoz, eta gaur egun 47 bazkide dauka elkarteak. Teresa Mendizabal lehendakariak adierazi duenez, herrian euren taldea ezagutzera emateko ere aprobetxatuko dute bihar-ko jardunaldia. 10:00etatik aurrera hasiko dira, eta 13:30eko meza-oren ondoren bazkaria izango dute frontoian. Durango eta Abadiño-ko elkarteak ere batuko dira.

"Pentsio baxuak"

Emakume alargunek gaur egun eduki ahal dituzten arazoaren artean, "pentsio baxuekin" langabezian dauden seme-alabak mantendu beharra aipatu du Bilbaok, adibidez. Euren egoeraren berri maiatzaren 13an emango dute, Durangoko Landako Gunean egingo duten topaketan. ■ M.O.

Errekakaleko jaietan, musika gelditu barik gaurtik aurrera

Hamabi tabernak eta Gaztetxeak antolatuko dituzte aurtengo Errekakaleko jaiak. Hasteko, gaur Arkada Social eta Kilauea taldeek kontzertua eskainiko dute plazan, 22:00etan. Ondoren, Gaztetxean, *Summum art* ikuskizunaren txanda izango da.

Biharko, 17:00etarako, pilota partidak programatu dituzte plazako frontoian. Iluntzean eta gauean, Luhartzen erromeriak girotuko du jaia. Gaztetxean kontzertuak egingo dira, eta Ateanoan Djak. Domekan umeentzako jolasak egokituko dituzte plazan, goizez nahiz arratsaldez. Barrakak egingo dira asteburu osoan, azaldu dutenez. ■ M.O.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan
saltsan.com

goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara zabalik
clínica dental horts klinika
b. unamunzaga e. etxebarria
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetorre 2. blokea C behean - 48200 Durango - 94 681 99 51

CENTRAL FORESTAL
42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Smurfit Kappa
Nervión
Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen
PEFC FSC
ziurtagirien bitartez



APIRILAREN 16TIK 30ERA %5 EKO DESKONTUA

ORDAIN ITZAZU ZURE EROSKETAK DURANGO TXARTELAREKIN



**Durango Txartela nola lortu jakiteko pasa zaitez +Dendak-en bulegotik
(Plateruen Plaza, 8) edo Caja Rural de Navarratik**

Acuática Sport - Adolfo Domínguez - Aintza regalos - Aliprox - Alki Decoración - Alluitz Motor - Almacenes Arrasate (Tien21) - Amaia - Andreu Decoración - Arri Oinetakoak
Artesanías Unzueta - Barceló Viajes - Bardezi Hombre - Bardezi Mujer - Bautista - Bizibike - Boxcalf - Briko-etxe - Café Misarbe - Calvin Klein - Calzados Goien - Calzados Katy
Calzados Murgoitio - Calzados Tabira - Chiloé Urban Wear - Curtidos Rodríguez - Deelena - Desberdin - Doroti - Eguren - El Armario de Lola - Esoft - Etxedreams - Farmanatur
Fercy - Folder - Foto Arentza - Gallastegi Harategia - García-Ariño Kirolak - Gasolineras Avia Izurtza y Otxandio - Hemen - Hotel Kurutziaga - Instituto Óptico - Joyería Mercedes
Mancisidor - K & M Ileak - Kalala - Landako Optika - Larrinaga - Lupass - M. Badiola - Maida - Makallau Etxea - Mango - Mañary - Masvacatas - Niko's - NK Decoración - NK
Textil - Oliver - Orratz - Osasun Etxea - Otero - Parafarmacia / Dietética Amaia - Passarela - Peluquería Lunik - Pizeli Interiores - Pysé - Relojería-Joyería Tabira - Relojería
Mancisidor - Royuela Decor - Sist. Descanso Centro-Hogar - Snoopy - Soho - Solarium Durango - Suministros Elcar - Susi - Sylke - Telepizza - Txandra - Urrike Liburudenda
Zubizarreta - Zurea

GARAI

Atutxa jeltzaleak utzitako kargua Elosegik beteko du aurrerantzean

Amaia Atutxa EAJko zinegotziak kargua utzi berri du. Behar politikoan beste ardura bat hartu behar izan du, eta bi funtzioak bateragarriak ez direlako hartu du erabakia. Lehenengo legealdia zen hau Atutxarentzat, iaz hautatu baitzuten herritarrek.

Lehenengo legealdia zen hau Atutxa zinegotziarentzat, iaz hautatu baitzuten herritarrek

Korporazioaren azkeneko batzarrean hasi zuten Atutxaren kargua uzteko tramitazioa, eta hurrengoan berretsiko dute. Hain zuzen ere, bilera horretan hartuko du zinegotzi ardura bere ordezkariak: Amaia Elosegik.

Ordezkaritza bi dauzka EAJK Garain. Zerrendako laugarrena zen Elosegi, baina hirugarrenak karguari ezetza eman ostean pasako da korporaziora. ■ M.O.

MAÑARIA

UEMAAn sartzeko bideari ekin dio gobernu taldeak

Hizkuntza eskubideak errespetatzeaz gainera, herritarren kontzientzia zuzatu gura dute

Herri-batzarra egingo dute bihar, Mañarian, udalak UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko) kide izateko duen asmoa azaltzeko. 11:30ean ipini dute zita, udaletxe-ko batzar aretoan. 2006ko datuen arabera, mañariarren %89 da euskal hiztun.

Dagoneko, gaia Kultura batzordetik pasatu da, eta apirilaren 20ko batzarrean onartu gura dute kargudunek. Ekainean, UEMAREN batzarrean berretsiko

"Herri euskaldunetan ere euskara galtzeko arriskua dago", UEMAREN berbetan

dute Mañariaren sarrera, eta guztira 66 udalerrri barne hartu.

UEMAREN lan-ildoak

Bieremutako dinamika da UEMAREN. Batetik, udalak euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko ildoak jorratzen du, instituzioan zein herriko zerbitzuetan eraginez. Esaterako, umeen erregistroa euskaraz egin ahal izatea. Bestetik, herritarren kontzientzia zuzatu gura dute, "herri euskaldunetan ere euskara galtzeko arriskua" ikusarazteko. "Sarri erdaraz berba egiten dugu, eta ingurukoak euskaraz egin duelako salbu dagoela uste dugu", esan dute UEMAKOek. Euskarak, bizirauteko, "nagusi" izango den lur-gunea behar duela diote. ■ M.Onaindia



Azkeneko datuek diotenez, mañariarren %89 da euskal hiztun.

BERRIZ

Udaleku irekietarako begirale bila dabil udala

Hamazortzi urtetik gorakoak, EGAdunak eta begirale ikasketak egindakoak izan behar dute

Urtero legez, Berrizko Udalak udaleku irekiak antolatuko ditu uztailerako. Haur eta gazteen aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko eta indartzeko helburua dute jardunaldi horiek, udaletik azaldu dutenez. Udalekuak antolatzeko, baina, begirale eta koordinatzaileen beharra daukatela adierazi dute. Hori dela-eta, gaiagaz interesatuta daudenei izena emateko deia egin die udalak, eta apirilaren

20an amaituko da inskripzio-epena, jakinarazi dutenez.

Gutxienezko baldintza batzuk edukitzea eskatu dute: hamazortzi urtetik gora, Euskara Gaitasun Agiria (EGA) eta begirale ikasketak edota titulua. Horrez gainera, kontuan hartuko dute berriztarren izatea eta esperientzia edukitzea.

Eskaera zelan egin

Interesdunek eskabide orria bete beharko dute, udaletxean edota www.berriz.org webgunean eskuratu eta gero. NAN, ikasketen nahiz euskara mailaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte eskabide orriagaz batera. ■ M.O.

Kontuan hartuko dute berriztarren izatea eta esperientzia edukitzea

SIZURTZA

Kirol materialari udalaren logoa ipiniz gero, 20 euro merkeago

2012rako onartu dituzten diru-laguntzen arteko berritasun bakarra da

Udalak dagoeneko herritarren zerbitzura ditu 2012ko diru-laguntzak, udalbatzarrean aho batez onartu ostean. Horietako bat berria da: kirol materiala erosteko udalaren logoa ipiniz gero, 20 euroko diru-laguntza jaso ahaliko du herritarrek.

Laguntza lortzeko ez dago kirolari profesionala izan beharrik, kirola maiztasunaz praktikatzen duten herritarrei bideratuta ere badago. Logoa luzaroan irauteko moduan txertatuta egon beharko da erositako materialari. Laguntza eskatzerakoan, ohiko dokumentazioaz gainera, erositako materialaren ordain-

giria eta txertatutako logoa garbi ikusten den argazkia erakutsi beharko dira udaletxean.

Eskaerak banan-banantz aztertuko dituzte, "gehiegikeriak" baztertzeko, baina, oro har, ordenantza irekia dela azaldu dute udal ordezkariak. Arropetan ez ezik, bestelako kirol materialetan (motxiletan edo *paddel* erraketa batean, esaterako) ipinitako logoek ere jasoko dute laguntza.

300 euroko atalagaz 20koa da laguntza bakoitza; beraz 15 herritarrek jaso dezakete

Haurra izan dutenei laguntza

Aurten seme-alabak eduki edo adoptatu dituzten gurasoei bideratutako laguntza ere eskuragarri dago. Jaiotza edo adopzio bakoitzeko 600 euro jaso ahaliko dira. Gastuak haurren beharrezan lotutakoak izan beharko dira, eta mota horretako dendetan egindakoak: farmaziak, umeen arropa dendak eta halakoak.

Diru laguntza hauek ere eska daitezke: herrian etxebizitzak alokatzeko (gehenez hilean 250 euroko laguntza); euskara ikastaroen matrikulaziorako, edota udalaren kirol erakundeen eskaintzen abonuetarako. ■ J.D.

Podologoia

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

A. Urreta podologoia

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podologoia 188. Eikargokidea

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO



Durungaldean labor

Abadiñon, Saibigaineko bataila gogoratuko dute

Apirilaren 14erako, biharko, Saibigainera igoera antolatu du Abadiñoko Barrizten kultur elkarteak, 1937ko apirilean mendi horretan gertatutako batailan izandako hildakoak oroitzeko. Urkiolatik irten-go dute, 09:30ean, Bizkarra jatetxearen aparkalekutik, eta ordu bi eta erdi inguruko ibilbidea osatuko dute. Ondoren, Saibigaine tontorrean, minutu bateko isilunea egingo dute.

Nekazaritza ekologikoa ikasiko dute Otxandion

Ortuak zaintzen: nekazaritza ekologikoa ikastaroa hamabost egunerik behin, martitzenetan, 17:00etatik 20:30etara izango da. Izena emateko, apirilaren 16ra arte dago aukera. Argazkilaritzaren inguruko ikastaroa ere antolatu du Udalak. Klaseak bari-kuro dira, 17:00etatik 19:00etara. Hilaren 18a da izena emateko azken eguna.

Autodefentsa tailerra, Errotan

Abadiñoko Udalak emakumeentzako autodefentsa tailerra antolatu du apirilaren 21rako. Klaseak 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era izango dira Errota kultur etxean. Udal mediatekan edo Traña-Matienako kultur etxean bertan eman daiteke izena (berdintasuna@abadiano.org).

Nafarroako konkista aztergai, Otxandion

Gazte asanbladak *Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan zuten oroimena* izeneko hitzaldia antolatu du gaurko, 19:00etarako, Otxandioko Gazte-txean. 1512-2012 Nafarroa Bizirik ekimeneko eta Jalgi Hadi Garaipenera mugimenduko ordezkariak parte hartuko dute berbaldian.

DIURRETA

Azken hamarkadako aurrekontu baxuena izango dute aurten

PSE-EEren babesagaz atera du aurrera gobernu taldeak sei milioi euroko kontu proposamena

Azken hamar urtetako aurrekontu baxuena izango du aurten udalak: 6.234.000 euro. "Zuhurtzia eta zorrotasuna" izan dira EAJren irizpideak, eta inbertsioen atala erdira jaitsi du. 1,6 milioi euro izango dituzte: Orozketako ur-hornidura sarea hobetu (300.000 euro), Garaizar eta Bazetan argiteria ipini (40.000 euro) eta Olaburu kalea konpontzera

(70.000 euro) bideratuko da gehien. Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, gastu sozio-kulturala mantendu gura dute, eta abiatutako egitasmoak "sendotu".

PSE-EEK "erantzukizun politikoagatik" babestu ditu kontuok. Bilduk, berriz, kontrako jarrera arrazoitzeko erabili ditu berba horiek: "Beharrezko hainbat premia ez dira jaso". Tartean, Erraldeko proiektuari babesa. Alkateak erantzun die horri, "finantziazio sendo" gabeko egitasmorik ezin dutela babestu.

Alkatearen soldata

Bilduk alkatearen soldatari ere larregizkoa deritzo (4.000 eurotik

"Hainbat premia" jaso ez izana kritikatu du Bilduk; tartean, Erraldeko proiektuari babesa



Olaburu kalea konpondu gura du aurten udalak eta horretarako 70.000 euro erabiliko dituzte.

gora). 2008tik soldata hori izoztuta egon eta 2010ean %6 jaitsi arren, Bildukoek alkateari adierazi diote horrek ez duela esan gura larregi izaten jarraitzen ez duenik. Talde politikoentzat dirua igo eta herriko presoen senideentzat laguntzarik ez ematea ere kritikatu dute.

PP: "Neurribakoa da diru sarreraren %74 pertsiana igotzeko erabiltzea"

PPren ustez, "neurribakoa da udalak 'ateak zabaltzeko' diru sarreraren %74 erabiltzea". "Lau urtean aurrekontua %4 jaitsi arren, bazezgoen gehiago egokitzea". Alkateak dio gastu arrunterako dela hori: "Tartean, lan handiz sortutako sare sozio-kulturala laguntzeko". ■ A. B.

DI MALLABIA

Argazki digitalen lehiaketa antolatuko dute lehen aldiz

Argazkiak maiatzaren 15era arte aurkeztu daitezke

Mallabiko Udalak I. Argazki Digitalen Lehiaketa antolatu du. Lehiaketan tokia izango dute Mallabian 2012ko udaberrian ateratako argazki guztiek: kale, paisaia, eraikin, monumentu, lorategi, erreferentziatzako gunek eta abar.

Maiatzaren 20an, azoka egunean, aukeratutako argazkiekin erakusketa egingo dute

Teknika askea izan daiteke, bakoitzak gura duen legez, zuri-beltzean nahiz koloretan. Argazkiak Kultur Etxean aurkeztu behar dira maiatzaren 15a baino lehen. Maiatzaren 20an, azoka egunean, aukeratutako argazkien erakusketa prestatuko dute frontoian. Sari banaketa eguerdian izango da. Irabazleak 250 euro eta *Amaiur 2012* ikuskizuneko sarrera bi eskuratuko ditu. Bigarren sarituak, 150 euro eta sarrera bi jasoko ditu. Hirugarren saria jasoko duenak, berriz, 50 euro eta sarrera bi eroango ditu. ■ J.G.

DI ATXONDO

Herrira bilgunea aurkeztuko dute gaur eskola berriko aretoan

Gaur, euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira hurreratzea helburu duen bilgunea aurkeztuko dute Atxondon: Herrira. Aurkezpen ekitaldia arratsaldeko 20:30ean egingo dute, eskola berriko aretoan.

Preso eta iheslariak etxeratzeari ahalbideratu gura duen herri mugimendu horrek herriko norbanakoekin eta elkarteekin elkarlanean lan egin gura du. Ekimenaren antolatzaileek helburu horrekin sortu duten webgunean azaldu dutenez, "Euskal Herrian hutsik dauden aulkiak betetzea da gure xedea; alde horretatik, helburu horrekin bat egiten duten herritar guztiei espazio eraginkor bat eskaintzea gura dugu, egin behar honetan ahalik eta indar gehien batzeko". ■ J.D.

GOIURIA
JATEXEA
ERRETEGIA
www.asadorgoiuria.com

Goiuria auzoa 16
48215 Iurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 08 86

EZKONTZAK - JAUNARTZEAK - ENPRESA BAZKARI-AFARIAK
BATAIOAK - EDOZEIN MOTAKO OSPAKIZUNAK - ...

2 pertsonentzako menuak zozketatuko ditugu
Bidali zure datuak:
anboto@anboto.org edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrioren aukera onak

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

BERBAZ>

“Lore esentziek norbere gaitasunak indartzen laguntzen dute”

Carmen Romanelliren ustez, gizakiak naturagandik banandu dira, eta horrek hainbat gabezi edukitzea eragin du



Carmen Romanelli

- Kinesiologoa eta terapeuta
- Durangon bizi da, 30 urte daramatza lore terapiekin beharrean

“Loreek gorde duten jakinduriarekin min bako erditzeak lortu daitezke”

Zertan eragiten dute esentziek?
Esan genezake esentzia bakoitzak gizarteko esparru bat hartzen duela. Esaterako, eguzki-loreak jakinduriari buruz berba egiten du, eta batez ere emakumei begirako esentzia da. Arka-karatsak itxaropena itzultzen laguntzen du: gaixotasun kronikoak dituzten pertsonentzako lagungarria izan daiteke, borroka etengabeak eragiten duen nekea kentzen lagundu dezake. Salbiki sexualitateagaz dauka zerikusia. Astuzkerrak, orekan laguntzen du: desoreka izaten dugu gauzei ez diegulako joaten uzten, gainean daroatzagu itzallak, minak, kiloka eta kiloka... Astuzkerrak askatzen laguntzen du, zikloak zarratzen.

Zelan lortzen dute esentziek aldaketak eragitea?

Orokorrean esentzia bakoitzak mundu bat dauka, baina denek lagundu zaitzakete. Eboluzionatzen eta geure burua hobeto ezagutzen lagunduko digute, eta prozesu bakoitza pasatzen, pasatu direla onartzen, enkistatuta geratu barik.

Amatasunaren alorra landu duzu bereziki.

Niretzako oso garrantzitsua den zerbait da, eta uste dut gizartean zerbait ere funtsezkoa izan beharko litzatekeela. Beste modu batera erditzea, haurdunaldia zaintzea... Ia min bako haurdunaldiak eta erditzeak lortu daitezke loreek gorde duten jakinduriarekin. ■ A.Ugalde

Lore terapien alorrean lan metodo berri bat eta **Hirutasun Esentziak** deitutako lore esentziak sortu ditu Carmen Romanellik. Asteon hitzaldiak eman eta gero, asteburuan tailerrak eskainiko ditu Zornotzan, zapatuan eta domekan, Jaurregibarriako Ingurumenaren Etxean.

Zelan egiten dute lan Hirutasun Esentziak?

Lore esentziek guk berez barnean dauzkagun gaitasunak indartzeko balio dute. Gure gorputzaren inguruan energia daukagu eta, urteak pasatuta, berau zaintzea ahaztu dugu. Naturan dagoen energia eta guk daukaguna bat dira. Esentziek, energian eragiterakoan, gure aldarrean ere eragiten dute, orekara eroan, eta horrek eragina dauka gaixotasunetan, sarritan somatizatu egiten ditugulako.

Energiei buruz zabilta berbetan...

Txinatarrek osasuna eta energia lotzen dituen teoria daukate, eta haren bidezko tratamenduak erabiltzen dituzte. Eurek ondo aztertuta daukate energia kana-

“Bach loreei barra kode bat ipini zieten, eta bibrazio-terapia batean ezin dituzu erradiatuta dagoen zerbaitekin ipini”

lak zelan bideratu eta akupuntura egiten dute. Baina, gizartean esaten da hori ezin dela zientifikoki frogatu eta akupuntura, homeopatia, esentziak... energia bidezko terapiekin zerikusia duen dena engainu moduan hartzen da. Esentziek medikuntza txinatarrean dute oinarria, eta gorputz-energian eta haren barruan ere eragiten dute. Metodoak, beste medikuntzari kontrajarriak barik, osagarriak dira.

Zer abantaila dauzkate esentziek?

Energia eremu horren alderdi arinenak arimarekin, gogoarekin, dauka zerikusia. Beharrezkoa da guretzako atal hori, baina beragandik oso bananduta gauden. Pertsona batzuentzako horrek ez dauka zentzurik, baina niretzako bai, horrek ematen diolako bizitzari zentzua, bestela beste barik bizitza biologiko bat izango litzateke. Baina ez: bizitzak eta kreazioan dagoen guztiak helburu bat dauka.

Zein da zuretzat bizitzaren zentzua?

Helburua, zarenarekin bat etorritako bizitza da. Sentitzen eta pentsatzen duzunarekin bat etorritako bizitza gero, besteak errespetatzen dituzu, beharizanak beteta daukazu..., dena ondo dago. Kosta egiten da naturatik banandu egin garelako, baina berak garenara buelta gaitzake. Nire helburua gizakiari naturagandik banandu eta gero galdu duena bueltatzea da.

Zelan lotu dituzu lore esentziak gaitasun horiekin?

Natura nik ulertzen dudana moduan ulertuko bazenu, gauza bera egingo zenuke. 25 urte ibili naiz Bach loreekin lanean, eta horren inguruan egiten zebiltzan lana ikusi nuenean, erretiratu egin nintzen eta nire kontura hasi nintzen ikerketak egiten. Esentziei barra kode bat ipini zieten eta terapia bibrazional baten ezin dituzu esentziak erra-

diatuta dagoen zerbaitekin ipini. Negozioa egiten hasi ziren eta nik ez dut horrela lan egin gura. Sistema guztiz aldatu dut. Hemengo loreekin egindako esentziak sortu ditut. Hemen gauza oso interesgarriak daukagu, ez dugu zertan beti kanpora begira ibili.

“Lore interesgarriak daukagu, ez dugu zertan beti kanpora begira ibili”

Oso esentzia desberdinak dira?

Guztiz. Bach loreek emozioen arloan lan egiten dute, baina horretarako lan terapeutiko bat ere egin behar da. Esentzia hauek sakonean eragiten dute eta terapia guztiak indartzen dituzte, inteligentzia hori dutelako. Gure memoria zelularrean dago dena idatzita. Guran konfiantza, erabakiak hartzeko gaitasuna, afektibitatea bizitzea... Guk berez dauzkagun gaitasunak indartzen laguntzen dute. Medikamentu batek ezin dizu lagundu zure burua hobeto ezagutzen.

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN



Astero etxean DOAN jaso dezazun egiten dugu behar

12.000 BAIETZ!

anboto
komunikabideak



2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIKek emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1 anboto@anboto.org helbidera idatzi.

2 946816558 telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Durango, martxoak 31

Gogoan daukat, ume ginala, Balbino Garitaonandia plazan su bat eta eskultura bat modu ia anonimoan jartzen zirela martxoak 31 egiten ebezan aldiro. Besterik ez. Haxe zan gertakari latz hareek gogoratzeko ekitaldi bakarra. Hamabost urte dira ez nazela Durangon bizi, eta ez jata bertan egotea suertau izan azken urteetako bonbardaketaren urteurrenako oroimen ekitaldietan. Aurtentzen, ordea. 2012ko martxoaren 31n, giza-hegazkina Kurutzia-gan danbor hotsez sartu zanetik, oilo azalez egin neban Andra Mariara arteko bidea. Hegazkinen etorrerak ekarriko eban bildurra neure sentitu neban: umezurtz izan nintzen Santa Susana, bonbardaketa osteko hauts eta ke artean hurkoen bila; zaparro zeharkalean barrena, ikaratuta zerura begira; heldu izutua, gorpu multzoaren ondoan pasatzean San Agustinalden; andrazko iraindua Nevers-en. Zenbat sentipen instalazino batek, antzeppen batek, dantza saio batek! Lau urteko semea gainean nebala Nevers-en, galdetu eta galdetu egiten eustan: "Nortzuk die arropa balzdun jantzarijek? Zeaittik dauz andra horrek hor?". Ezta rrian korapiloa nebala, berbarik be ez jatan ahotik ataraten; semea-ri estu-estu egin neutsan, "nirea ez egizue eroan!" esanaz legez.

Antolatutako ekitaldiek, hareek jazoerak geure azalean bizitakoak balira legez sentiarazo euskuezan, baina ganera, bere tesuinguruan ezarrita. Ze, bizi ahal izan genduan banako, gizarte zein herri mailako askatasunak apurka-apurka eta ez neke gitxigaz loratzen joiazan aro ha zelan zapaldu zan, zer ekarri eben gerraosteko inpunitateak, errebantxismoak, totalitarismoak, zergatik ez esan, faxismoak. Goraipatzekoa Nevers-eko andrazkoen kartzela eta bertako jazoerak bereziki lantzea, bertan sufridutako gehienak durangar izan ez eta hamarkada luzeetan ezagutu ez doguzanak plazaratu zirelako.

Eskerrak emon gura deusuedaz, bene-benetan, Zilar Aste-ko ekitaldiak antolatzen parte hartu dozuen guztioi. Eskerrak, 1936ko martxoaren 31ko durangar sentiarazo ninduzuelako. Baziren, bagara, memoria da lotura, ezin dogu ahaztu eta ez doguz ahaztu gura.

Aitzol Mendiola

Berbaro Taldeak, martxoaren 44an

Zilar Astearen kide ditugun talde eta sortzaileei aurtengo aldia Durangoko bonbardaketaren 75. urteurrenari eskaintzea proposatu genien, bagenekien buruhaustek eragingo zizkigula baina baita satisfakzio galanta ere. Eta ondo gogoangarria izan da, gero, aurtengo Zilar Astea: sakontasunez landua, sentimenduz betea eta talentuz sortua.

Batxilergoko ikasgeletara eroan dugu fronteko lerroa; mundu osoko bonbaketek letren sutan izan dituzten argi-ilunez gogoretatu dugu literatura eskolan; gerrako kantak abestera irten dugu Alde Zaharrean; bonben triskantza errekreatu dugu 1937 Gaur sentikariagaz; gerraosteko sentimendu eta bizipenei argi egin diegu *Lurra Astinduz* antzerkiagaz. 1936koa gerra zibila barik altxamendu militarra izan zela gogoratuz, metrailatutako kaleetan ibili gara instalazio artistikoa, antzeppena eta dantza berpizgarri zirela, dagokien kontestuan omenduz errepublikaren aldeko euskaldunen erresistentzia, bonbapean hildako herritarrek, gerraostean kartzelatutako emakumeak... Eta urteroko ekitaldia inoizkorik hunkigarriena bilakatu genuen Andra Marian, jendetzaren lagun.

Hasieran esan dugun moduan, baina, buruhaustek ere ekarri dizkigu gaiak, ahaleginak ahalegin ez dugulako lortu Durangoko Udalgaz egitarau bat adostu eta durangarrei eskain-

tza bakarra egiterik. Gaia korapilatsua den seinale, ekitaldi batzuk bi egitarauetan joan dira. Eta, arduratuta diogu: Zilar Aste-ko egitarau bakarrak agertu diren ekitaldiek udalaren laguntasunik jasoko duten ez dakigu oraindino.

Memoria historikoa egiten gabiltza, bada, eta gogora ekarri gura dugu, aurretik egindako ekimen jakin edo pertsonal txalagarri batzuen ondoren Berbarokook izan ginela, Kriskitin eta Gerediagaz batera, 2001ean Durangoko bonbardaketa gogoratzeko urteroko ekitaldi herritarrek egiten hasi ginenak. Gaiak gure eguneroko jardunagaz zuzeneko loturarik ez daukan arren, 1937ko bonbardaketak oroitzera herritarra merezi duela erabaki genuen orduan. Artean bonbek ez zuten oihartzunik egiten Durangon. Geroztik, aldiz, badabil zarata han eta hemen. Euskal Herrian zein estatu osoan legez, Durangaldean ere hainbat elkarte sortu da gai hori lantzeko, eta instituzioek ere ekimen ugari ipini dute martxan. Ezin zuen bestela izan, noski, eta gaia- inguruko ikuspegi kontrajarriak ere agertu dira bonbardaketak txikitutako etxeen lokatzetan. Durangon bertan ekitaldi jakin bat da desadostasunak eragiten dituena, "gerran hildako durangar guztiak" omentzeko Durangoko Udalak 2004az geroztik hilerrian egin ohi duena. Urteotan deserroso sentitu eta gero, Berbaro Taldeko kideok eskari hauxe egin gura diogu Durangoko Udalari: Durangoko bonbardaketa gogoratzeko ekitaldiak eta gerran hildako durangar guztien omenaldia bereizi ditzala.

Edozelan ere, gure jardunetik garrantzia handiagoa duen proposamen orokorrak egin gura diegu Durangoko Udaleko talde guztiei eta, bereziki, gobernu taldeari: herri-ekimenean dihardugun taldeoi sorkuntzarako gaitasuna eta lankidetzarako esparrua onartu diezagula, herri-kulturagintzak eta udal baliabideek bat egiteko bideak erraztu. Baldintza txukun samarrak baino ez ditugu eskatzen, durangarrei Zilar Astea eta antzeko ekimen gozagarriak eta aberasgarriak eskaintzeko. Eta ahaztu barik, eskerrak asko eta zorionak zuei, Zilar Astearen antolakuntzan, sorkuntzan zein ekitaldietara hurreratzu parte hartu duzuen plateru guztioi!

Berbaro taldea

Zuri grebalari

Gutun honen bidez, Durangaldeko LAB sindikatutik martxoaren 29ko greba deialdiarekin bat egin zenuten guztiok zoriondu nahi zaituztegu. Zoriondu ez ezik, bereziki eskerrak eman nahi dizkizuegu greba egun arrakastatsua irten zedin lan egin zenuten militante eta herritar guztioi. Aspalditik esaten ari garen bezala, botere ekonomiko eta espekulatuzaile handiek, gobernuen (PSOE zein PP) laguntzarekin, ondo diseinaturiko plan bat jarraituz, ongizate estatua (geratzen den apurra) eta babes soziala birrindu nahi dituzte. Beraiek sortutako krisiaren aitzakiapean, eskubide galera hauek guztiak krisi osteko egoera marraztea dute begipuntuan. Eskubiderik gabeko langileria pobre eta otzanagoa dute helburu. Plangintza horretan, langileon eta gizarte osoaren aurkako erasoek ez dute etenik. Aste honetan bertan, Espainiako gobernuak lapur handiei diru zikina zuritzeko amnistia fiskala oparitzeaz bat, biztanleriarentzat murrizketa berriak iragarri ditu. 10.000 miloi euro aurreztu nahi ditu gure osasun eta hezkuntzaren bizkar. Miserableak!

Tamaina horretako erasoerik aurre egiteko, gaur inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da kalean zein enpresetan, beste gizarte bat nahi dugunon arteko antolakuntza eta elkarlana. Etorkizuna gure esku dago. Borrokan ikusiko dugu elkar. Gora euskal langileria.

Durangaldeko LAB sindikatua

Sei hankako mahaia

Prest al zaude?

Urdaspal Bolinaga Bildu

Gizakia betidanik saiatu da bere ingurua ulertzen eta inguru hori bere beharrezanetara egokitzen. Argi dago beraz gizaki ahal herri eredu izan daitezkeela, pertsona bakoitzak era desberdin batean ulertzen baitu bere ingurua, eta ulertzen duenaren arabera herria nahiko luke. Nire ustez, oso aberasgarria da, pertsona bakoitzak bere ikuspuntua gehituz gero herrian dauden errealitate desberdin guztiak kontuan hartzen baitira eta gainera ideien elkartruke horretan denok errealitate berri eta askoren jabe egiten baikara, norbera pertsona moduan aberastuz. Argi dago hobeto pentsatzen dutela 4 buruk 1 ek baino.

Horregatik ez dut ulertzen gobernu taldearen (PNV) jarrera uzkurra. Non ez duten nahi herritarrek parte har dezaten herriko erabakietan (aurrekontuak; zerbitzuak; diru laguntzak, kirol instalazioak; hirigintza, zenbat etxebizitza egin, parkeak...). Beraiek bakarrik erabakitzen dute nolako izan behar den gure herria eta ezin duten beste alderdien batekin/batzuekin (PP edo PSOE) bulegoetan 'kromo-trukea' eginez, hau da, honetan alde eginez gero beste honetan alde agertuko gara, beraiek deitzen dioten bezala: 'politik' eginez.

Adibiderik garbiena duela gutxi izan dugu, gazte lokalen erabilera arautzen duen ordenantza-ekin. Zentzudunena, lokalen erabilzaileekin batzea eta beraien errealitatea ezagutu eta horren arabera arautegi bat elkarlanean egitea da. Aldiz, gobernu taldeak (PNV) udaleko teknikari bati enkargua bidali zion arautegi bat egin zezan erabilzaileen inongo errealitate jakin gabe, horrela egindako arautegia ez da inondik inora erabilgarria.

Zorionez, Durangoko lokalen erabilzaileak haien artean elkar-tu eta indarra lortu dute ordenantza hori martxan ez jartzeko, nahiz eta gaur egun oraindik ez dieten biltzeko datarik proposatu. Beraz herritarrok badugu zer esan eta, biltzean, baita indarra ere gure herriko erabakietan eragiteko. Guztion iritzia beharrezkoak dira horretarako, hasiko gara gaurdanik Durango parte-hartzaile bat erakitzen?

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko apirilaren 13a
10. urtea - 454 zk.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onandia,
Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Juanra de la Cruz eta Zalao Fuertes.

@anbotokultura

KULTURA

ALFONSO TORREGROSA > AKTOREA



hori emaitzan ere. Begiradagaz eta barreagaz adierazten dizuikuslegoak, hartutako lanak merezi izan duela. Oso bizia izan da obraren prestaketa prozesua. Testua irakurri nuenean pentsatzen nuena baino konplikatuagoa izan da.

Konpainia beragaz burutzen dituzu lanak ala hainbat taldeekin jarduten duzu?

Libretik goaz. Nire zerbitzua eskatzen duen konpainiagaz egiten dut lan. Orain, Gasteizko Traspasos taldeagaz dihardut, Tanttakagaz ordezkapen bat ere egin dut *No me haga daño* obrarako, eta hor gabiltza. Berdin telebistagaz: eskariaren arabera gabiltza.

Telebistan, 'Amar en tiempos revueltos' telesailan jardun du

"Negarra eragitea baino gaitzagoa da barrea eragitea"

Alfonso Torregrosa Durangoko aktorea Traspasos taldearen obra berriko protagonista da, Billy Wilder zine zuzendari eta gidoigilearen *¿Qué ocurrió entre mi padre y tu madre?* testuaren moldaketa da *Avanti!*

**Martxoan aurkeztu zenuten 'Avanti' Durangon. Zelako harre-
ra egin zizun San Agustín kultur-
guneko ikusleok?**

Ederto joan zen dena, eta oso emanaldi hunkigarria izan zen. Beti da gustu onekoa Durangora bueltatzea, eta gainera obrak harrera oso ona edukizuen. Komedia batez goazenean, gainera, beti geratzen zaizu aho-zapore bereziki gozoa.

**"Elementu guztiak bat
etortzea eskatzen du
komediaren erritmoak"**

**Emanaldi horretako zer sentsa-
zio gogoratzen duzu?**

Helduen antzezlan bat lehenengoz ikustera joan zen nire ilobatoak emanaldia amaitu zenean zeukan txunditu aurpegia (barrez. Nire ibilbidea jarraitu duen jendeagaz berriro elkartzea ere oso hunkigarria izan zen.

**Zenbat denbora zeneraman
Durangon jardun barik?**

Esango nuke *Demasiado humano* (los últimos días de Nietzsche) obragaz egon nintzela Durangon azkenengoz, 2009 urte inguruan. Horregatik da hain berezia Duran-

gora bueltatzea: zure jendeagaz berriro elkartzea plazer handia delako beti.

**Zure ibilbidean oso ohikoa ez
den arloan, komedian, ikusi zintu-
en jendeak. Zaila egin zaizu
erregistroa aldatzea?**

Egia da orain arte ez dudala komedia askorik egin izan. Dirudiena baino zailagoa da komedia egitea: tragedia edo drama batez negarra eragitea baino gaitzagoa da barrea eragitea. Komediak beti dauka zoramen puntu bat, baina aldi berean oso erreala izan behar du. Elementu guztiak ondo bat etortzea eskatzen du komediaren erritmoak. Egoera absurdo bat sinesgarri egitea da lortzen saiatu behar duzuna, eta dirudiena baino zailagoa da hori.

**Mikel Gomez de Segura zuzenda-
riagaz aurretik ere jardundakoa
zara. Zelakoa izan da elkarlana?**

Pepe el Romano, *El saludador* eta *Demasiado humano* lanen ostean beragaz egiten dudana laugarren ikuskizuna da. Ondo ezagutzen dugu elkar, eta horren abantaila da lana nondik nora joan daitekeen aurreikusi zenezakeela. Baina, aurretik egindakoagaz alderatuta, bestelakoak dira testu eta istorio hauek, eta horrek eman dio lan honi guztiak behar duten erronka kutsu hori. Oso aberasga-

**"Lan handia eskatu dit
lanak, eta igarri egiten
da hori emaitzan"**

ria da, beste zuzendari eta lan egiteko erekin esperientzia berriak eduki ostean, noizean behin lan-kideekin elkartzea.

**Zelan prestatu duzu 'Avanti' obra-
ko pertsonaia protagonista?**

Denbora asko eta lan handia eskatu dit lanak, eta igarri egiten da

**Telebistako proiekturen batean
diharduzu orain?**

Une honetan ez. Aurten *Amar en tiempos revueltos* telesaila hainbat ataletan egin dut lan. *Crema-torio* eta *El secreto de Puenteviejo*-n ere parte hartu dut. Egun batetik bestera sortzen dira telebistarako aukera horiek ere, eta horrela hartzen ditugu.

**Zaila egiten zaizu antzerkia eta
telebistako lana uztartzea?**

Egia esan ez. Antzerkiko lana asteburuetakoa izaten da gehienetan: behin antzezlan martxan dagoela, emanaldiak asteburuetan izaten dira. Antzerkiko konpainiak zein telebistako ekoiztetxea zure beste lanak errespetatzen ditu, beraz, ez da zaila izaten. Normalean da antzerkian eta telebistan aldi berean jardutea. ■ I. Esteban

Madril, Iruñea eta Soria ditu lanaren araberrako bizileku

Oso ondo ezagutzen duen zuzendari baten gidaritzagaz dihardu *Avanti* obra honetan Alfonso Torregrosak: Mikel Gomez de Seguragaz. Azken hamar urteotan lau antzezlanetan izan du Torregrosak zuzendari.

Geroa antzerki taldearen sasoiko bere ibilbidea ezagutzen dutenak harririk dituen generoan dihardu obra honetan Alfonso Torregrosak. Obra komikoa da Gomez de Segurak zuzentzen duena.

Madril, Iruñea eta Soria artean bizi da Durangon jaiotako Alfonso Torregrosa aktorea: "Lana non dagoen, bizilekua aldatzen dugu". Madrilen edo Iruñean lana eskaintzen badiete, bertan bizitzen dira denboraldi batez. "Lanik ez daukagun sasoietan", dio Torregrosak, "orain zortzi urtetik Soriako herritxo batean atontzen dihardugun etxe batean bizimodu lasaiagoa egiten dugu: deskantsatu egiten dugu, hausnartu...".



DANTZA > JAIALDIA

Elorriotik autobusa egongo da, debalde, 'Break On Stage'-era

Miribillako Bilbao Arenara lekualdatu dute jaialdia; zazpi metroko aldatsa atonduko dute 'Dirt Jump'-en ibiltzeko

Kale kulturen erakustaldia, Zaragoza, Madril, Paris eta Bruselako dantzarien lehiaketa, Rapsuskleiren hip hop emanaldia... Hori dena eskainiko ditu *Break On Stage* jaialdiak aurten. Azken urteetan bezala, Bilbon egongo dute Elorrioko Arriola antzokian jaio zen jaialdia.

Break On Stage-era joateko doako autobus zerbitzua eskainiko dute, aurten. Autobusean joateko, Arriolan bertan, 94 658 31 92 telefono zenbakian edo arriola@arriolaka.com helbidean eman daiteke izena. Jaialdirako sarrerak Arriolan eta Parra tabernan daude salgai, 10 euroan.

Publiko gehiago erakartzeko eta agertokia atontzeko leku zabalagoa duelako, Miribilla auzoko Bilbao Arenara lekualdatu dute jaialdia. Espazio berria aprobetxatuta, *Dirt Jump* eta kale kulturako beste hainbat adierazpiderako, zazpi metroko aldatsa atonduko dute, besteak beste.

Apirilaren 21ean izango da jaialdia. *Free style* saio batez estreinatuko dute agertokia, 19:30ean, eta 00:00ak arteko egitaraua antolatu dute. Rapsusklei hi-hop-lariaren kontzertuagaz amaituko da *Break On Stage*. ■ I.E.

Jaialdirako sarrerak Parra tabernan eta Arriolan daude salgai, 10 euroan



GEURE DURANGALDEA

Libe Mimenza
Kazetaria



SPEED KULTURA

Non zaude? Nola, Anboto eskuan zutunik? Ordenagailu aurrean, aldi berean sei leihotan nabigatzen? Tabernan lagunekin eta zutabea irakurri nahian? Etxean, bazkaria sutan, garbigailuaren zain eta arratsalderako planak buruan bueltaka?

Ez dakit zertan ariko zaren, baina (ia) seguru, presaka zabiltzala.

Abiadura bizian gidatzen dugu egunerokoa, errutinak maneiatzeko automatak gara, azeleragailua estutuz egiten dugu gosaririk afarira arteko denbora. Hala ere, ez dugu denborarik, edo ez behintzat, denbora nahikorik. Asteburuak ere ziztu bizian igarotzen dira baina bat-batean, baretasun arrotzeko une jakin batean... Dena erlatibizatzen du zure garunak: korrika nabili bai, korrika bizi naiz, baina zein da lasterketa? Zertarako?

Dozena bat gauza eta betebeharrak aldi berean, gorputza bertan eta burua lau mundu paralelotan igeri. Dantza azkarra, arina, euforikoa, nahasia... Eta hutsala.

Speed marrak ADN txipean jarri zizkiguten eta orain, balaztarik gabeko zentzugabekeriaren ukabildada frenetikoak lelotu gaitu.

Eta norabide kardiako honetan badirudi, halabeharrez, guztiak izan behar duela mikro. Pilula azkarrak maite ditugu. Pilula asko. Infokikatutako mikroadiktoak gara.

Azken aldian sentsazio gogaikarria daramat aldean: bizitza *speediko* mikroadiktoak *pause* egoeran jarriz gero, inguruko izaki arrotzena bihurtzen zara.

Eta hau ez da orain bogan dagoen *slow* kulturaren apologia bat, baina pentsa, nola duzu posible zure zentzu guztiak gauza konkretu bakarrean zentratzea eta une horretaz soilik gozatzea?

Har ezazu *speed* kulturaren mandoa eta gobernatu nahierara *on/off* denborak; orgasmoa apokaliptikoa izango da!

LEHIAKETA >

Liburutegiari buruzko galdera sortagaz lehia antolatu dute

Adibidez: noiz zabaldu zuten Elorrioko liburutegia? Liburutegiaren historiagaz loturiko galdetegiak prestatu dute, eta lehiaketa bat antolatu, liburutegiaren 45. urteurrena ospatzeko. Izan ere, duela bost urte Iturri kultur etxean dagoen arren, 40 urte lehenago zabaldu zuten.

Liburu Egunerako erantzun behar da, eta hainbat sari daude

Apirilaren 23rako aurkitu eta eman behar dira erantzun zuzenak, Liburu Egunerako, eta hainbat sari daude: liburutegitik proposaturiko galderei erantzun zuzen gehien ematen dizkietenek, bilagunentzako afaria, antzerkirako eta zinemarako bina sarre, eta Elorriori buruzko liburu sorta irabazi ahalko dituzte.

Unescok Nazioarteko Liburu eta Egileen Eskubideen eguna izendatu zuen. Elorrioren, ipuin kontalaritza saioa ere egongo da egun horretan: *Adi, ipuinak!* ■ I.E.

PINTURA > ERAKUSKETA

Naturak iradokitako sentimenduak daude Durango Museoan ikusgai

Javier Valverde margolariaren inspirazio iturri bere bizileku eta lantokiko inguruak dira

Aiako Harriei begira dagoen base-ria du Javier Valverdek (1956, Donostia) bizileku eta lantoki. Inguratzen duen naturagaz lotura estua duten koadroak margotu ditu. Natura ikuspuntu poetiko batez interpretatu du Valverdek.

Ikuspuntu poetiko batez interpretatu du natura Valverdek

dek. Lan koloretsu eta oso iradokitzaileak sortu ditu.

Naturak eragindako pentsamendu eta sentimenduak islatzen ditu Valverdek bere koadroetan. Ez du paisajea modu figuratiboan landu: pagadi hostotsuak



nagusi diren ingurune batean bizi den arren, bere koadroetan marraztu dituen zuhaitzetariko asko hosto gutxiak dira.

Ordu askotako dedikazioagaz osaturiko margolanak dira erakusketan batutakoak. Kontenplazio pausatua eskatzen dute, aberastasun osoa dastatzeko. Ikusleak osatu beharreko hutsuneak eskaintzen dituzte.

Anbiguotasunagaz jokatu du Javier Valverdek bere koadroetan: ezer ez da hasierako edo azaleko begiratuan ematen duena. Margo guztietan dago zer hausnartu eta zer ikertu.

Anbiguotasunagaz jokatu du bere koadroetan: ezer ez da ematen duena

Valverderen aita eta arreba ere margolariak dira. Hain zuzen, Rosa arreba nagusiari eskerrak ezagutu zuen 70 eta 80ko hamarkadetan Gipuzkoako margogintzaren abangoardia osatu zuen Gaur taldea.

Maiatzaren hasierara arte Durangoko Arte eta Historia Museoan egongo da Javier Valverde margolariaren lanen erakusketa ikusgai. Artistaren azken hiru urteetako margolanak bildu dituzte Durangoko erakusketa honetarako. ■ I.E.

POESIA > EMANALDIA

Literatura unibertsaleko gustoko aleak hartuta, herritarren aurrean aurkezteko errezitaldia prestatu dute Durangoko 11 ikasleek. Durangoko Institutuan Munduko Literatura ikasten ari diren gazteak izango dira protagonista, Batxilergoko bigarren mailakoak. Apirilaren 18an izango da emanaldia, Plateruena Kafe Antzokian.

Ikasleek eurek joko dute pianoa, txeloa, oboea, klarineta eta akordeoia

Berba hutsa bakarrik ez, musika ere erabiliko dute olerkiak laguntzeko. Ikasleek eurek jotako piano, klarineta, txelo, oboe eta akordeoi doinuak entzungo dira Plateruenean. Hiru ataletan banatu dute errezitaldia, eta atal guz-

Literatura ikasleek olerkiak musikagaz errezitatuko dituzte

Batxilergoko 11 gaztek klasean prestatutakoa Plateruenean erakutsiko dute

teiei batasuna emateko, 'gaua' hartu dute *leitmotiv* edo hari nagusi modura: gaua eta iluntasuna, gaua eta misterioa, gaua eta maitasuna izango dira gaiak. Baudelaire, Lord Byron, Neruda, Rilke, Donne, Dylan Thomas eta Benedettiren olerkiak eskainiko dituzte, esaterako, emanaldian.

Institutuko literatura irakasleak, Xabi Bovedak bultzatuta prestatu dute errezitaldia. Hain zuzen, Xabi Bovedak berak eta Joseba Sarrionandiak euskarara itzulitako klasikoak dira eguazteneko emanaldiaren oinarri. Hasieran, gustoko olerkiak modu oroko-

Gaua eta iluntasuna, gaua eta misterioa, gaua eta maitasuna dira gaiak

Sarrionandiak eta Bovedak euskaratutako klasikoak irakurriko dituzte

rrean aukeratu zituzten, eta gero egin zuten bigarren selekzioa, gauarekin lotutakoak bakarrik hartu eta besteak baztertuta.

Martxoan egin zuten lehenengo biderrez errezitaldia, institutuko Aste Kulturalean. Orduan, ikaskideen aurrean aritu ziren. Hiru emanaldi egin zituzten institutuan, eta bertako entzuleen harrera beroak animatu ditu Plateruenera ere eroatera. Kafe Antzokiko oholtzatik herritar, guraso eta lagun guztiei gura diete erakutsi ikasgelan prestatutako emanaldia, eguazten iluntzean, 20:00etatik aurrera. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA >

Javier Fernandezek 'Derechos' Ziortzan

Javier Fernandez Abadiñoeko argazkilariaren lanak Ziortza-Bolibarko Simon Bolivar museoan egongo dira ikusgai, apirilean. *Derechos* izena du Fernandezek 2010eko urte amaieran bere herriko Errota kultur etxean ere ikusgai ipini zuen erakusketak.

Bilduma horregaz, gizarteari kritika egin eta giza eskubideak irudikatu gura ditu. Argazki zuri-belatzak dira, eta xake piezak eta oholak erabiltzen ditu, horiek dira irudietan agertzen diren elementuak.

Salgai daude, gainera, *Derechos* erakusketan bildutako argazkiak: irabazien %50 nazioarteko Gurutze Gorria erakundeari eskainiko dio Fernandezek.

Urte amaieran, Asturiasen ere erakutsiko ditu argazkiak Javier Fernandezek, Genero Indarkeriaren Kontrako Egunaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira. Kazetaritza ikaslea eta argazkilaria da 24 urteko gazte abadiñarra. ■ I.E.

ZINEMA > EMANALDIA

Giza dorreen tradizioari buruzko dokumentala emango dute Elorrion

'The human tower' filman Txile, India eta Herrialde Katalanetako hiru balentria ageri dira

"Elkarren laguntzagaz zeinen gora ailegatu gaitezkeen". Mezu hori erakutsi gura izan dute Ram Devineni eta Cano Rojas zuzendariak. Sortzaileen berbetan, "pasioari eta ausardiari buruz" diharduen lana da *The human tower*, 74 minutuko dokumentala.

Apirilaren 19an, 19:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxean emango dute *The human tower*. Hilean Behin zikloaren barruan antolatu dute emanaldia.

Castellers-ak erakusten dira dokumentalean, giza dorreak, munduko hiru txokotan: Vilafranca del Penedesen (Herrialde Katalanak), Txileko Santiagon (Txile) eta Mumbain (India).

Batetik, Indiako Dahi Handi jaialdian, munduko giza dorre handiena eraiki gura duen gizon taldea ageri da filman. Bestetik, ikus daiteke Herrialde Katalanetako 400 urteko tradizioagaz zelan jarraitzen duen Vilafranca del Penedeseko taldeak, gizon, ema-



Sortzaileen berbetan, "pasioari eta ausardiari" buruz diharduen lana da

kume eta umeek osatuak. Azkenik, Txileko Santiagon, kulturen arteko Valparaiso jaialdian lehenengo zazpi mailako dorrea osatzea helburu duen taldea ere agertzen da dokumentalean. ■ I.E.

IPUIN KONTALARIA >

Munduko bost herrialdeetako ipuinak, hiru herritan

Durangon, Elorrion eta Berri-zen. Hiru herri horietara munduko bost herrialdeetako ipuinak ekarriko dituzte datorren aste amaieran. Kolonbia, Frantzia, Kuba eta Haitiko kontalariak etorriko dira, Munduko Ipuin Kontalariaren jaialdian.

Kolonbia, Frantzia, Kuba eta Haitiko kontalariak etorriko dira jaialdian

Beatriz Egizabal euskaldunak eta Carolina Rueda kolonbiarrak jardungo dute apirilaren 19an, 20:00etan, Berrizko kultur etxean. Apirilaren 20an, berriz, Durangoko Udal Liburutegian (20:00etan) eta Elorrioko Ateneoan (22:00etan) izango dira beste bi saio.

Hamaikagarren urtez antolatu dute jaialdia, eta helburua, munduko kulturen ahozko transmisioaren abesrastasuna ezagutzera ematea da, ipuinen eta kontalarien bidez. ■ I.E.

Hamaikagarren urtez antolatu dute munduko kontalarien jaialdia

Kontalariak

Euskal Herria
Beatriz Egizabal

Haiti
Mimi Barthelemy

Kolonbia
Carolina Rueda

Frantzia
Pepito Mateo

Kuba
Alexis Diaz

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

Gau Elektronikoak

APRILAK 13 22:00etan
ROUTE TOUR
GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 8-10.

APRILAK 14 19:00etan
AIKO ERROMERIA
DANTZALDIA. Sarrera doan.

APRILAK 18 20:00etan
POESIA EMANALDIA
EMANALDIA. Sarrera doan.

APRILAK 20 21:00etan
2.GREATEST HITS GAUA
KONTZERTUAK. Sarrera: 6 (5+1 zozketa).

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

DON BALTASARREN ANIMALIAK
Teloncillo Teatro (Castilla y Leon)

Apirilak 22 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776



greatest hits gaua

PLATERUENA APIRILA

2012 EGITARAU

www.plateruena.net

13

BARIKUA

GAUELEKTRONIKOA

GAU ELEKTRONIKOA TOUR 2012

Danny Serrano (Get physical-Berlin)
Iker Undersound (Piston Rec.)
Ruben Costas (Hall of fame Rec.)
+ Warm up artists
22:00an. Sarrera: 8 - 10 €



20

BARIKUA

MUSIKAKONTZERTUAK

2. GREATEST HITS GAUA

AC/DC
AMY WHINEHOUSE
BARRICADA
BONY M
CHICHARRICA
DEMOLITION 23
EXKIXU
FOO FIGHTERS

JAMES BROWN
METALLICA
SLIPKNOT
STEVIE WONDER
THE OFFSPRING
TOM WAITS
ZAKARRAK



www.greatesthitsgaua.com

21:00tik aurrera. Sarrera: 5€ + 1€



14

ZAPATUA

DANTZALDIIBILTARIA

AIKO ERROMERIA

www.aikotaldea.com

19:00an. Sarrera DOAN



26

EGUENA

KANTUZALEENTXOKOA

KANTULAGUN

GONBIDATUA: JOSU ZABALA eta BatBiHiruLau

20:00an. (urteko izen-ematea 15€)



18

EGUAZTENA

LITERATURIKUSKIZUNA

DURANGOKO INSTITUTOKO IKASLEEN LITERATUR-IKUSKIZUNA

20:00an. Sarrera DOAN



27

BARIKUA

MUSIKAKONTZERTUAK

2. GREATEST HITS GAUA

BON JOVI
COCK SPARRER
ELVIS
ESKORBUTO
HELLOWEEN
HEROES DEL SILENCIO
HERTZAINAK
LENNY KRAVITZ

MISFITS
R.I.P.
RADIO FUTURA
RISE AGAINST
THE FLAMING SIDEBURNS
TURBONEGRO
ZZ TOP



www.greatesthitsgaua.com

21:00tik aurrera. Sarrera: 5€ + 1€



MAIATZEAN DATOZENAK: DF BERTSOZALE ESKOLA,
JERO ROMERO, JABIER MUGURUZA, LOS DEL GAS...

www.plateruenasarrerak.eu

DF bertsozale eskola 2012



Maiatzak 3, eguena, 20:00an: Maialen Lujanbio. "10 segundo, 11 erabaki. Nola lan ordu luzeak istante laburrean sarrarazi."

Maiatzak 10, eguena, 20:00an: Unai Iturriaga. "Umorea epaitzen: zeri egiten diogu barre txapelketetan?"

Maiatzak 17, eguena, 20:00an: Asier Ibaibarriaga. "Bertsoa epaitu liteke?"

Maiatzak 24, eguena, 20:00an: Josu Goikoetxea. "Bertso trama prestatzen".

Maiatzak 31, eguena, 20:00an: BERTSO TRAMA. I. ELORTZA, JON MAIA ETA OIHANA BARTRA.

Izen-ematea 10€ (maiatzaren 3a arte)

@anbotokirola

KIROLAK >

“Ez gara konformatzen igoera lortzeagaz soilik; lehenengo geratuta igo gura dugu”



DATUAK

Izen-abizenak:
Kerman Gonzalez
Adina: 28 urte
Herria: Amorebieta-Etxano
Garaiera: 1.92 metro
Postua: Aurrelaria

IBILBIDEA

- **Gazte mailan:**
Lemoa taldean
- **2002/2004:**
Larrabetzuko Uritarran
- **2004/2011:**
Zornotza B taldean
- **2011/2012:**
Abadiño futbol taldean

Liga amaitzeko sei partiduren faltan, Abadiño futbol taldeak Bigarren erregionaleko promozio postua segurtatu dezake asteburuan. Abadiño mailako liderra da gaur egun, Kerman Gonzalez pitxitxiaren 15 golek lagunduta.

Asteburuan Zamudio B hartuko duzue etxean.

Bertan 1-3 menderatu genituen. Irabazteko partidua dela uste dut, baina sekula ez da jakiten. Atzean sartzen badira, kosta egingo zaigu aukerak sortzea. Esaterako, Mungiaren kontrako partidua ere irabaztekoa zen eta hiru puntuak eraman zituzten.

Irabazita, gutxienez promozioa jokatzea segurtuta izango duzue.

Promozioa segurtatzea garrantzitsua da, baina ez gara konformatzen, zuzenean igo gura dugu eta ez hori bakarrik: lehenengo geratuta igo gura dugu. Denboraldi ia osoan lidertzan egon gara eta igoera bigarren postu batez eskuratzea etsipen txiki bat izango litzateke. Behinena igoera lortzea da, hori argi dago, baina hainbeste denboran lehenengo egonda postu horri eustea merezi dugula uste dut.

Iaz Abadiñok ligako azken txanpan galdu zuen igoera. Zu orduan ez zinen taldean, baina taldekideek gogoratzen dute?

Bai, baina ez beldurraren ikuspegitik, motibazioarenetik baino. Aurten ezin dela berdina gertatu

aitpatzen dugu. Eta ez dut uste gertatuko denik, abantaila polita dugulako eta taldean giro ona dagoelako.

Giro on hori da taldea hain sendo ibiltzearen sekretua?

Hein handi batean, bai. Horrez gainera, aurten talde zabalagoa dugu. Hau da, jokalaritza falta direnean taldeari ez dio eragiten. Kalitatezko jokalaritza bat lesionatu bada kalitatezko beste batek ordezkatzen du. Talde zabala izatea garrantzitsua da. Iaz, indar aldetik justuago heldu ziren ligako azken txanpara.

Lehenengoz aurrelari diharduzu aurten eta mailako pitxitxia zara 15 golegaz. Espero zenuen?

Ez. Oierrek [Gonzalez, entrenatzailea] Abadiñora batzeko proposamena egin zidanean, zelai erdian beharrean, aurrelari moduan probatu nahi ninduela esan zidan. Aspalditik ezagutzen nau eta badaki zeintzuk diren nire dohaiak. Esperientzia berria da eta, egia esanda, oso pozik nago. Nik beti jokatu izan dut zelai erdian, baina aurrelari moduan ibili ondoren, nahiago dut postu hau. Askoz gehiago gozatzen dut.

Talde berria, posizio berria... Apustua izan zen.

Bai, apustua izan zen. Lehenengo jardunaldian, entrenatzailea hamaikakoak jakinarazten zebilela, erdilarien artean nire izenik aipatu ez zuenean, aulkian gertatu nintzela pentsatu nuen, baina bat-batean, aurrelariak izendatu eta "Kerman Gonzalez" izan zen horietako bat. Apur bat estutu egin nintzen; ez nekien eskatzen zidatena egiteko kapaz izango nintzen. Zorionez, proba oso ondo irten zen.

Zure jokamoldea goitik behera aldatu beharrean aurkitu zinen?

Posizioa, mugimenduak... Dena ikasi behar izan dut. Okerrago

“Iaz azken txanpan huts egin zuen taldeak; aurten ezin dela berdina gertatu esaten diogu elkarri”

“Oso pozik nabil aurrelari postuan; zelai erdian baino gehiago gozatzen dut aurrean”

ibiliko nintzela uste nuen. Disfrutatzen nabil eta horrek ere laguntzen du ondo errenditzen.

Zorrontzako taldeko Unai Becerrak ere 15 gol daramatza.

Pitxitxi izatea edo ez berdin zait. Ez dut horretan pentsatzen. Igoera da garrantzitsuen.

Altua zarenez (1,92 metro) erreferentzia zara atzetik baloia ateratzeko arazoak dituzue?

Atzekoak zelai erdian laguntzarik aurkitzen ez badute eta paserako lerroa itxita badago, entrenatzaileak beti dio ni bilatzeko, mailako gizonik altuena izateko naizelako. Sarritan erasorako ere baliatzen dugu jokaldia. Hegaletako eta aurrealdeko jokalaritza guztiak, Alain, Jokin eta Adrian, oso arinak dira, eta buruz baloia eurei ematea lortuz gero, arriskua sortzen dugu.

Igoera lortu nahiz ez, Abadiñon jarraituko duzu datorren denboraldian?

Ez dakit datorren urtean zer egingo dudun. Galdera horri ezin diot orain erantzun; ez dakit futboleko jarraituko dudun ere.

Jarraitzen baduzu, 28 urteagaz, zer eskatzen diozu hemendik aurrera futbolari?

Nagoen tokian nagoela, ondo pasatzea eskatzen diot. Nire ibilbidean eskaintza on batzuei ezetz esan diet. Futboleko lagun giroagaz disfrutatzea jokatzen dut. Dirua, ahalik mailarik gorenean jokatzea... Berdin zait.

Adibide bat ipiniko dizut. Orain hiru-lau urte ere egin zidaten Abadiñora etortzeko eskaintza, estu zebiltzanez taldea indartu gura zutelako. Ez etortzea erabaki nuen ez nuelako inor ezagutzen. Aurten beste egoera bat aurkitu dut. Borja Garcia eta Eneko Silva nigaz etorri dira Amorebieta Btik, eta Jon Hernandez Zorrontzakotik fitxatu dute. Beraz, banuen jende ezaguna eta hori izan da Abadiñora etortzeko arrazoietakoa bat.

Amorebietan hainbat denboraldi egin zenituen. Arraroa izan da aurten zure talde ohiaren kontra jokatzea?

Etxean jokatu genuena ez hainbeste, baina Zornotzako lehia berezia egin zitzaidan. Zornotzan Abadiñoko kamisetagaz jokatzea... arraroa izan zen. Gainera gol bi sartu nituen.

Ospatu zenituen?

Bai, biak. Instintiboa izan zen. Izan ere, goletako batez banako berdinketa hautsi nuen. Taldea larri samar zebilen eta golak lasaitasun apur bat ekarri zigun. Partidua amaitu zenean, Zornotzan taldekide izandako batek gogoratu zidan kontua, beti ere brometan.

Zornotza negargarri dabil aurten. 25 partidutan bost puntu bakarrik batu ditu.

Kontuan hartu behar da iaz liga amaitu zenean jokalaritza guztiak utzi zutela taldea, joateko Abadiñora, Arratiara, Berrizera... Zornotzan lehenengo taldera bideratzen dituzte indar eta ahalgin guztiak. Bigarren taldea ez dute zaintzen.

Lemoako gazteekin ere jokatu zenuen orain urte asko. Aurten larri dabilta.

Niri kontatu didatenean oinarrituta, taldea desagertu egingo dela esango nuke. Harrobiek ez dute dirurik eta zor handiak diduzte. ■ J.Derteano



Ziortza Isasi eta Ane Iriarte (podiumaren erdiko bikotea), urrezko dominagaz.

Espainiako errekor berria ezarri du Isasik pistan

Ziortza Isasi elorriarrak abiadura modalitatean lortu du marka berria gazteetan; guztira lau domina irabazi ditu Madrilgo belodromoan

Mailarik maila, abiadura probetan parekorik ez duela erakutsi du Ziortza Isasi Galapagargo belodromoan (Madril, Espainia), gazteen mailako Espainiako txapelketan. Kadete mailan oraindik berea da Estatuko markarik onena eta, joan zen asteburuz geroztik, gazteetako errekorren jabe ere bada.

Proban kasualitatez parte hartu zuela azaldu du hamasei urteko elorriarrak: "Taldekako modalitatean parte hartu gura genuen, baina Ane Iriarte eta biok bakarrik geundenez, ezin izan genuen talderik osatu.

Gazteetan ez ezik, kadeteetan ere berea da abidurako errekorra

Ondorioz, abiaduran probatzea pentsatu genuen eta espero baino hobeto irten zitzaigun. Egia esanda, ez genuen entrenamendu berezirik egin proba hori prestatzeko". Abiadurako proba konbinatu horretan Isasi izuli bi eman zizkion belodromari eta Iriartek bat. Denbora bien batuketak urrezko domina eman

zuen. Isasi bere itzuli biak 38.189an osatu zituen, aurreko errekorra baino hiru ehunen gutxiagotan.

Asteburua beste hiru dominekin borobildu zuen. Banakako jazarpenean, gehien gustatzen zaionean, zilarra jantzi zuen. Puntuaketa lortutako zilarra izan zen nekagarriena: 80 itzuliko proban, sprint guztiak (zortzi) aurreko postuan amaitu zituen eta, gainera, aurkariei itzuli bat ere irabazi zien. Azkenik, *scratch* modalitatean, azkenengo sprintaren ondoren geratu zen hirugarren, brontzea eskuratu. ■ J.D.

ADITUAREN TXOKOA

Unai Zamalloa
Saskibaloitza



Azkeneko txanpa

Aste Santuko oporraldiaren ondoren badator talde guztientzako azkeneko txanpa. ACB ligan azkeneko bost partiduetan sartuta, gure hiru taldeak lehenengo lau postuetan sailkatzeko borrokan ari dira. Egia esan ikaragarria da hiru taldeon orain arteko denboraldia.

Errazen daukana, Caja Laboral Baskonia da. Hauen urtea nahiz eta irregularra izan eta Euroligatik kanpo nahi baino arinago geratu, Andres Nocioniren fitxaketa berriarekin, taldea asko indartu da eta ACB liga irabazteko hautagaien artean dago.

Gescrap Bilbao Bizkaia Basketek Euroligan *Final Four*-era sartzeko *play off*-etan oso lan ona egin du, Europako txapelketa gorena irabazteko faborito nagusiaren aurrean. Horrek, hasieran, ligan eragina izan arren, gero taldeak ezin hobeto erantzun du eta orain lehenengo lauren artean sailkatzeko lanean ari da eta hori lortzeko faboritoetako bat da. Aurten ere, *play off*-etan inork aurrez aurre aurkitu gura ez duen aurkaria izango da.

Lagun Aro Gipuzkoa Basket, aurtengo ligako sorpresa nagusienetakoa bihurtzen ari da. Oso hasiera kaxkarraren ondoren, ez zuen inork espero egiten ari den denboraldia. Sergi Vidal, Andy Panko eta Javi Salgado buru dituztela, laugarren postua lortzeko borroka bizian ari dira, aurrekontu handiagoa duten taldeen artean. Ikaragarria da Sito Alonso entrenatzailearen lana bere lehen urtean.

Beraz, gozatu dezagun gure taldeekin. Ez dakigu horrelako pribilegio bat beste inoiz errepikatuko den!

Aizpurua, Presno, Aranzabal eta Aldekoa bikain Euskadigaz

Gazteetan Euskadiko saskibaloitza selekzioak maila bereziko igoera lortu du nesketan zein mutilen. Tabirako Baqué klubeko lau jokalaritza ari dira, neska bat eta hiru mutil: Maiane Aizpurua, Markel Presno, Markel Aranzabal eta Jon Aldekoa. Emozioz betetako partida erabakigarrian mutilen taldeak 78-75 menderatu zuten Gaztela-Leon; azken unean erabaki zen partidua. Nesken taldeak, aldiz, errazago hartu zuen mendean Nafarroako selekzioa: 64-42.



Asteburuan itzuliko dira Irlandatik Zutundugaz joandako gazteak



Durangoko Zutundu eta SUP surf eskolak eta Irlandako surf elkartek elkarrekin antolatutako truke programaren bidez, Euskal Herriko 15 gazte Irlandan egon dira, apirilaren 7tik. Durangaldeko hiru gazte ere bai, tartean: Irene Luziate durangarra, eta Laia Gerrikagoitia eta Elene Quintana abadiñarrak. Surfa praktikatzeko gainera, bertako kultura ezagutzeko hainbat irteera ere egin dituzte. Asteburuan itzuliko dira Irlandatik.

Etzi irabazita, eskura luke igoera lurretakok

Etzi etxean Moraza menderatzen badu, lurretako futbol taldeak hanka eta erdi Ohorezko mailan izango luke. Maila gorenean hiru taldek lortuko dute igoera. Orain, lurretako liderrak hamar puntuko alde du Arripausuetako taldea bisitatuko duen Moraza laugarrenarekiko. Hiru puntuak batuko balitu, sei partiduren faltan 13 puntuko alde erabakigarria izango luke.

Maila berean, bestelako egoeran daude Zaldia eta Berriz. Zaldibarko taldea jaitziera postuan dago eta puntu batera du salbazioa. Asteburu hau ez da puntuak batzeko egokiena, Retuerto bigarren sailkatua bisitatuko baitute. Berrizek, aldiz, maila galduko du miraririk ezean, 13 puntura baitute salbazioa. ■ J.D.

Europa mailako txapelketa osoan lehiatuko da Igor Urien pilotua

Radical SR8a gidatuko du Silverstone, Spa eta Donington bezalako zirkuitu ezagunetan



Domekako lehenengo lasterketan 50 autok parte hartuko dute.

Igor Urienek Europako Radical Masters txapelketari ekingo dio bihar, Britainia Handiko Silverstone zirkuituan. Azarora bitartean zazpi lasterketatan lehiatuko da, iaz Prototipoen Espainiako Txapelketa irabazteko balio izan zion barketa beragaz: Radical SR8 autoa. Besteak beste, Spa, Donington eta Katalunia lako zirkuitu ezagunetan gidatuko du.

Iaz, Europako txapelketako proba bitan parte hartu zuen, Londresen eta Estorilen, eta

“Hasieran ahalik eta gehien ikastea izango da helburu nagusia”

Zazpi probak osatzen dute txapelketa azarora bitartean

errendimendu oso ona eskaini ostean, aurten txapelketa hasi eta amaitu lehiatzea erabaki du, Valentziako Speed Factory Racing taldeagaz. “Iazko esperientziak txapelketa ona egiteko motibazioa eman dit, baina oraingoz ahalik eta gehien ikastea da nire helburu nagusia”, dio hamazazpi urteko abadiñarrak.

Aurreboraldian barketa probatzeko modurik izan ez zenez, atzotik Silverstone daude entrenamendu libreei ahalik

etekin handiena ateratzeko asmoz. Dena dela, Radical SR8a ondo ezagutzen du eta ez du uste autora egokitzea asko kostatuko zaionik.

Formula 3rako babesle bila

Automobilismoak hiru adar nagusi ditu eliterako bidean: barketa, rallya eta formula. Abadiñarrak barketaren bidea aukeratu behar izan du. Aurten Urien Formula 3an ez ibiltzeko arrazoi nagusia babesle falta izan da. Valentziako Cedars taldeagaz probak egin ditu eta azkarrenen artean ibili da. Maila horretako txapelketak, ordea, talentuaz gainera, poltsikoa bete diru izatea eskatzen du eta alor horretan hobeto hornituta egon dira beste pilotu batzuk.

Formula 3an ibiltzeko probak egin ditu Cedars eskuderiagaz

Cedars Libanoko dirudun eta motorzale batzuen proiektua da, 2011z geroztik Valentziako gidatze eskolagaz elkarlanean diharduena. Iaz Formula 3ko txapelketa irabazi zuten.

Hala ere, ez dute etsiko eta, Pedro Urien aitaren esanetan, “datorren urtera begira babesleak lortzen saiatuko gara Formula 3an edo Renaulten Formula World Series-en lehiatu ahal izateko”. ■ J.Derteano.

Klasikoei omenaldia egingo dio Eskuko Racing klubak Durangon

25 urtetik gorako 40 bat auto egongo dira ikusgai Landako etorbidean eta San Roken



Izeta markako autoak ikusmina eragiten du zaleen artean.

Eskuko Racing automobilismo klubak auto klasikoaren erakusketak antolatu du zaturako. Aurten bigarren aldia izango du.

09:30etik 12:30 ingurura Landako erakustazokaren eta Landako etorbidearen arteko plazan batuko dira 40 bat auto. Durangaldetik zehar ibilbidea osatu ostean, San Rokeko aparkalekuan batuko dira bazkaritarako, eta hantxe egongo dira 18:00ak arte. Iaz legez, hainbat sari banatuko dituzte: autorik zaharrenari, zaleei gehien gustatu zaienari...

Batuko diren auto klasikoaren artean daude 1975eko Ford Mustang-a eta auto lasterketarako prestatuta dagoen Seat 850a, adibidez. Sasoi batean, AEBetako telesail ezagun batean, Steve Urkel pertsonaiak gidatzen zuen Izeta autoak ere ikusmina sortzen du. ■ J.D.

1975eko Ford Mustang berezia eta Izeta autoa batuko dira, esaterako

Maillot horia defendatuko du Alain Ramirezek

Bihar XXVIII. Tabira Sarietan lehiatuko dira Durangon. Gazteen mailako txirrindularitza lasterketa honetan ehun bat txirrindularik parte hartuko dute. Pelotoia 11:00etan abiatuko da Ezkurditik eta, 74 kilometroko ibilbidea osatu ostean, irabazlea 13:00ak inguruan helmugaratuko da, Ezkurdin bertan.

Lasterketa berezia izango da Alain Ramirez gaztearentzat, Durangoko Beste Alde Orue Eskolako kidearentzat, Pipas sariko maillot horia defendatu beharko duelako.

Zirkuitu gorabeheratsu bati eman beharreko hiru itzulik osatzen dute proba. Durangotik abiatu ostean, Miota eta Goiuria gainak pasatu beharko dituzte txirrindulariek. Indartsuenek mendate horiek baliatuko dituzte eraso jotzeko. Ondoren, Garaitik jaitsi eta Durangoko saihesbidetik sartuko dira helmugara. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Indautxu

Zapatuan, 16:30ean, Eleizalden

MAILA GORENA

Iurretako - Moraza

Domekan, 17:30ean, Larrakozelain

BIGAREN ERREGIONALA

Abadiño - Zamudio B

Zapatuan, 17:00etan, Astolan

HIRUGAREN ERREGIONALA

Zaldia B - Betolatz

Zapatuan, 16:30ean, Solobarrian

Berriz B - Ermua B

Domekan, 11:30ean, Larrakozelain

Iurretako B - Elorrio B

Domekan, 19:45ean, Larrakozelain

PILOTA

SAN PRUDENTZIO

Gazteak:

- Rebole-Sagasti

- Ibarrondo-Mendia

- Atutxa-Urretxu

- Azpuri-Garralda

Barikuan, 20:15ean, Traña-Matienan.

Kadeteak:

- Elorriaga-Rementeria / Zubikarai-Mendibe

- Calleja-Gonzalez / Labaka-Aburuza

Nagusiak:

- Uriarte / Muguruza

Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienan.

- Elizalde-Ugalde

- Irribarria-(Rebole Sagasti)

- Beitia-Amantegi

- Berasaluze IX-Ojuel

Domekan, 16:30ean, Traña-Matienan.

Azkenari irabazi eta lasaitasuna gura du Elorriok

Ohorezko mailan jaitsiera saihestu guran dabil Elorrio futbol taldea. Liga amaitzeko zazpi jardunaldiren faltan, sei puntuko aldea dute Galdakaorekiko, eta zazpikoa Indautxu azkenarekiko. Hain zuzen, asteburuan Indautxu hartuko dute eta, irabaziz gero, etsai zuten bat atzean utziko luke.

Galdakaok Somorrostroren zelaian jokatu behar du, igoerako promoziorako borrokan dabilen taldea, eta hiru puntuak beharrezko dituena.

Liga amaitu bitartean, Elorriok Somorrostro eta Deusto Bren kontrako partidua izango ditu zailenak, sailkapenari erreparatuz gero. Behealdean dabilzanen artean alde erabakiorrik zabalzen ez bada, azken aurreko jardunaldian Galdaka B eta Elorrio neurtuko dituen partidutik ere txinpartak irten daitezke. Gallarta, Deusto eta Gurutzetaren aurka ere lehiatuko dira. ■ J.D.

AISIALDIA >

mendi ibilbideak



NEBERONDORA OSTERATXO BAT

Mugarra mendiaren magaleko izotzaren ibilbide erakargarria

Neberondora buelta egiteko ibilbidea Durangon hasi eta amaitzen da; eta tartean, mendizaleek atsedena hartzeko gunek ere badaude

San Roke basilizatik irten eta Durangoko balkoira jotzea da ibilbide honetako lehenengo eginbeharra. Begiratokiaren eskumako aldetik, Bitañorako bidea hartu eta

Palazio baserri historikotik pasatzen da bidea. Eskumako pista hartu eta bidegurutze batean ezkerrera jota ailegatuko da ibiltaria Neberondora (440 m). Neguan botatako elurra gor-

de ohi zen bertan, eguraldia epeltzean izotza edukitzeko.

Neberondoko bigarren bidegurutzean ezkerrera hartuta jarraitzen du bideak. Santa Luzia auzorako norabidea da hori. Mugarra iparraldean kokatuta, baserri batzuk ikusteko aukera dago hor.

Santa Luzia auzotik aurrera joanda, mendi-pistak bidegurutze batera eroango du mendizalea. Han, ezkerreko aukera hartu eta Landaederra aisialdi-gunera irtengo du. Zerbait jan eta lasai egoteko ingurune atsegina da Landaederra.

Aurreko bidegurutzean eskumara hartu eta Orozketa auzora jaitsiko da ibiltaria, azkeneko metroak osatzeko. Pistatik lehenengo eta asfaltotik gero, Durangora helduko da.



ZER IKUSI...

Mugarra mendia

Landaederra aisialdi-gunea

DISTANTZIA	IRAUPENA	IGOERA METATUA	ZAILTASUNA
11 km	3 ordu	300 m	Erraza



Jatetxe gida



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00


Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringak. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

Saldu / Erosi
Errentan eman / Errentan hartu
Lan eskariak / Lan eskaintzak
Galdu / Aurkitu
Eman / Hartu

Eguazteneko 17:00ak arte
jasotako iragarkiak barikuko
horretako alean
argitaratuko ditugu.
Beranduago jasotakoak
hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitzez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23
Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Matienan. Guztiz berriztatua, kalitate handiko altzariek. 3 logela, bainugela, 18 m²-ko egongela balkoiarekin eta sukalde hornitua. 246.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615 73 85 52 edo 688 86 18 78

Abadiño. 98 m² Muntzaritzen. Tel.: 678 83 60 50

Atxondo. 200 m²-ko txalata. Sukaldea, 2 egongela, 4 logela, 3 bainugela, trastelekua. Altzariz hornitua. Bero-gailua, zoru erradiantea eta aspirazio zentrala. Terraza eta 4.000 m²-ko terrena. 900.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615-70 12 23.

Durango. Madalena auzoan. 2 logela, eskatz berri-berria eta diseinuzkoa. Kapritoxo jantzia. 2 logela, egongela handia eta eguzkitsua. Garaje/trastelekua aukeran. Tel.: 656 781 021

Elorrio. 75 m². 3 logela, 2 bainugela eta 8 m²-ko trastelekua. Sukalde ekipatua, 2 horma-armairu eta igogailua. 230.000 euro. Garajea aukeran. Tel.: 634 45 72 01

Gasteiz. 57 m². Igogailua, 2 logela, 2 komun, sukalde ekipatua, balkoia. Banakako garajea, itxia. Pizina eta belardia. Altzariek. 665757807.

Otxandio. 90 m². Eguzkitsua, 4 logela, egongela, sukalde, komun eta balkoia. Berritua. 150.000 euro. Tel.: 675 90 52 27

ERRENTAN EMAN

Berriz. Pisua alokairuan Berrizen. Hiru logela, egongela handia, sukalde handia, despentsa eta bi komun. Tel.: 656 78 02 15

Durango. Alde zaharra. 78 m², 3 logela, sukalde, egongela eta despentsa (700 euro). Tel.: 686 21 49 64.

Zaldibar. Erdialdean, guztiz berritua. Tel.: 660 45 87 56

ERRENTAN HARTU

Durungaldea. Pisu edo apartamentu baten bila. Tel.: 645-00 96 02

PISUA KONPARTITU

Durango. Logela bat alokagai. Tel.: 630-76 18 28.

Durango. Logela bat alokagai Tabiran. 645 00 96 02

Iurreta. Logela alokagai neska euskaldun batentzat. 200 euro. 633-23 38 48.

LOKALAK

Gasteiz. Tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia. Bulegoko altzariek eta garajeko atea. 2 komun. Hiri erdiguneko komunikazio onak ditu. Alokai-

tzea ere posible: 800euro/hil. Telefonoa: 665757807 (ana)

GARAJEAK

SALDU

Berriz. Itxia. 42 m². Ate automatikoa. Ura eta argiaren instalazioak. Komun, bodega txikia, txokoa, sukalde. 2-3 kotxe. Tel.: 615-75 21 36.

Berriz. Learreta-markinan. Eskola aurrean. Sarrerak errepidera ematen du. 30 m². Tel.: 663-39 75 88.

Durango. Itxia. Konbentukale 23an. Tel.: 667 35 14 00

Elorrio. Itxia. 20.000 euro. Tel.: 660-45 87 56.

Iurreta. Eleixalden. Tel.: 636 22 07 96

EROSI

Durungaldea. Karabana gordetzeko garaje itxia edo pabeloia erosiko nuke. 2,5m-ko altuera. Tel.: 691-70 69 13 (18:00etatik aurrera).

ERRENTAN EMAN

Durango. 50 euro hilean. Tel.: 675-71 95 54.

Durango. Lurpeko garaje irekia Murueta Torren. Trasteroa: 2,35m x 1,65m. Kontakua: 645 72 24 05 (Jon).

LURSAILAK

Abadiño. Salgai, matienan. 2.000 m², erreka ondoan eta bide ertzean. Aproposa ortua hartzeko. Tel.: 658-75 65 12.

